

# guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA



**Konpost planta  
martxan jarrita,  
Sakanan sortutako  
materia organikoa  
bertan tratatuko da** / 7

**Hiriberri Arakilgo  
ibai gaineko zubiak  
erortzeko arriskua  
du, arkuhan harriak  
faltan baititu** / 9

**Irati Igoa Espainiako  
Federazioen Arteko  
Paleta Gomako  
txapeldunordea  
izan da Valentzian** / 17

**Leire Etxanizek  
Espainiako  
Taekwondoko Kopako  
kadeteen zilarrezko  
domina lortu du** / 20

**Altsasuko  
antzerki tailerrak  
'Flores para ser  
vistas' antzezlan  
eskainiko du bihar** / 21

# "Zaila izaten da liburu dendatik ezer gabe ateratzea"

**NEREA BALDA SANJUAN IDAZLEA**

Irurtzundarrak Nafarroako Ateneoaren poesia saria irabazi du 'Begiradak' poemagatik. Poesiaren eta narrazioaren artean ibiltzen da, bai irakurtzeko bai idazteko

**Erkuden Ruiz Barroso** IRURTZUN

Gaur apirilak 23 ditu, Liburuaren nazioarteko eguna da. Literatura Unibertsalaren bi idazle ospetsuenen heriotzaren urtemuga aitortzen da: Cervantes eta Shakespeare. Liburutegiak, liburu dendak eta hirietan liburu azokak bisitatzeko eguna. Ehunka eta milaka liburu gordetzen dituzte, milioika hitz, milaka istorio. Literaturaren munduan egun berezia bada ere, liburuak dauden toki horiek egunerokotasunean bisitatu beharko lirake, Nerea Balda Sanjuan idazle irurtzundarrak egiten duen bezala.

**Zer da zuretako liburuaren eguna?**

Horrelako egunak egiten direnean zerbait nolabaiteko aitortpena egiteko egiten dira, eta kasu honetan literaturari egiten zaion aitortpen bat. Bereziki egun honetan gustuko izaten dut liburu azokak bisitatzeko eta horren inguruan mugitzea. Altsasu Institutuan bertan egiten diren ekitaldietan parte hartzen dut ere. Egunerok egiten den zerbait da, irakurri edo liburu dendak bisitatu, baina egun hau aitzakia hartuta aitortpen hori egiteko modu bat da.

**Liburuaren eguna ospatzea beharrezkoa da?**

Literaturak garai zaila bizi du. Orain beste entretenimendu mota asko daude, ikus-entzunezkoak gehienbat. Gazteengan ikusten da joera handiagoa dutela horietara jotzera, erraztasunagatik eta azkartasunagatik. Jendarte osora hedatu da. Garai batean agian jendeak gehiago jotzen zuen literaturara entretenimenduetatik jakintza moduan ere. Orain aukera askoz gehiago ditugu. Literaturak lehiakide gehiago ditu. Baina iruditzen zait literaturak eskaintzen dituela horiek eskaintzen ez dituzten beste gauza batzuk: liburu bat hartzen duzunean beste pausa bat eskatzen du, beste denbora bat, zerbait lasaiagoa, gauzak ulertzeko beste modu bat. Hori zabaldu behar da, gogorarazi.

**Konfinamenduak irakurzaletasuna handitzeko lagundu omen du.**

Denetarik entzun dut. Jendeak denbora gehiago izan zuen eta badirudi bai literatura bai musika eta arteak orokorrean indarra hartu zutela. Aldi berean, liburu dendak itxita egon ziren, eta ez

zen erosteko aukerarik. Gero ikusi zen halako bultzada bat ireki zituztenean. Bi aldeak ikusten dira. Etxean zeuden liburuak irakurri edo jendeak beste plataforma batzuetara jo du, online, eta liburuak berak objektu bezala indarra galdu zuen.

**Gaurko egunean erosteko liburu zerrenda duzu?**

Zerrenda amaigabea dut. Batzuk sartzen dira eta beste batzuk atera. Zerrenda idatzita ez daukat, baina buruan asko. Egia esan, urtean zehar eskuratzen ditut liburuak. Gustuko ditudanean edo liburu denda batera joaten naizenean. Normalean zaila izaten da ezer gabe ateratzea. Udaberri buelta hau eta Durangoko Azoka izaten dira liburuak ateratzeko garaia. Zer aterako den ikusteko zain nago, beti egoten da zer edo zer.

**Zer nolako liburuak gustatzen zaizkizu?**

Denetarik, egia esan. Ez daukat bereziki gustukoagoa dudan arlo edo generorik. Saiatzen naiz denetarik irakurtzen. Gustuko izaten dut egunerokoan oinarritutako istorioak irakurtzea, zerbait auke-

ratzerakoan pertsonaien eguneroko bizimodua azaltzen dena. Baina edozer irakurri dezaket.

**Azken aldian irakurri dituzunen artean, gomendiorik?**

Azken boladan hainbat itzulpen irakurri ditut. Normalean euskaraz irakurtzen dut. Gaztelaniaz ere bai, baina saiatzen naiz euskaraz irakurtzen eta azken urteetan nire ustez oso itzulpen onak egin dira. Orduan, azken boladan itzulpen batzuk irakurri ditut. Esaterako, oso gustuko izan ditudan bi: *Muskuiluak afaltzeko* Birgit Vanderbeke idazle alemandarrarena, Ainhoa Irazustabarrenak itzulia eta *Erabili goldea hilen hezurren gainetik* Olga Tokarczuk poloniarrena, Amaia Apalauza eta Sonia Kolaczek itzulia. Harra-patu naute pila bat. Ez da beti horrela gertatzen. Kanpoko literatura gaztelaniaz iristen zaigunez, horretara jotzen dugu. Baina euskaraz gaur egun oso itzulpen onak egiten dira, eta badugu aukera idazle hauengana gerturatzeko.

**Liburu bat hasten duzunean, eta ez zaizunean gustatzen, zer egiten duzu?**

Ez dut beti gauza bera egiten. Normalean saiatzen naiz aurrera egiten, aukera ematen diot. Gertatu izan zait aukera ematea, eta ongi. Batzuetan kostatzen da gehiago, ez dakit kontakizunagatik edo norberaren egoeragatik. Behin momentu batera iritsita ikusten badut ezinezkoa dela uzten dut. Zerrendan hain-

**"NORMALEAN AUKERA BAT EMATEN DIET; LIBURU BATZUEK BADITUZTE HAIEN MOMENTUAK ERE"**

**"BATZUETAN INSPIRAZIOA DATOR, BAINA BESTE ASKOTAN IDAZTEN JARRI BEHAR ZARA"**

beste edukita, hobe uztea. Beste momenturen batean hartuko dut. Beste momentu batean hartu eta bigarren aldi horretan aurrera egiten duzu. Liburu batzuek badituzte haien momentua ere. Beste batzuetan argi ikusten dut ez dela niretzat. Adinaren arabera izan daiteke ere. Niri gertatu izan zait oso gazte nintzela eta ezin, baina urte batzuk beranduago bai.

**Liburuak azpimarratu edo idatzi, edo bere horretan utzi?**

Normalean zerbait apuntatu nahi badut edo jaso nahi badut beste nonbaiten idazten dut. Batzuetan papera gertu ez izan eta agian apuntatzen dut. Baina normalean ez. Markatu behar baditut markatzen ditut. Gertatu izan zait zikintzea ere, kafearekin irakur-

## Liburuaren eguna: egitaraua

**Ostirala 23**

**18:00etan**, Altsasuko Inxostiapunta gazte gunean. *Zer da liburu bat?*

**18:30ean**, Urdiaingo liburutegian. Joxe Lacalleren *Si te mando una carta* liburuaren aurkezpena.

**Astlehena 26**

**18:00etan**, Iortia kultur gunean. Liburuaren astea. Mari Romeroen *¿Por qué no nos dejáis entrar?* liburuaren aurkezpena.

**Asteartea 27**

**17:30etan**, Iortia kultur gunean. Liburuaren astea. *Lehen Hezkuntzako haurrendako desberdintasunak murrizten* tailerra Manolita Thunders artistarekin.

**Asteazkena**

**18:00etan**, Iortia kultur gunean. Liburuaren astea. Hitzaldia: *Tinta gorri tinta urdin mugak* puskatzeko literatura Patxi Zubizarreta idazlearekin.

**EGOKI**  
Ventanas PVC Leihok  
www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA  
egoki@ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

tzen egon eta gainera erori. Kontua da gustura irakurtzea, eta hor gertatzen dena, gertatuko da. **Irakurketa non utzi duzun jakiteko orria tolestu edo orri markatzailea?** Orri markatzaileak erabiltzen ditut eskura baldin baditut. Behin hasi nintzen, ez dakit bilduma deitu, baina oporretan joaten zarenean jendeak bolada batean opari bezala ekartzen zizkidan eta pila bat ditut. Saiatzen naiz orri markatzaileak erabiltzen. Batzuetan liburu baterako erabili izan badut, hurrengorako aldatzen dut.

#### **Zein da zure bizitzako libururik gustukoena?**

Oso galdera zaila. Baditut batzuk bereziki gogoan ditudanak. Denbora pasatuta ahaztu egiten zaizkizu batzuk, eta badira beste batzuk hor gelditzen zaizkizunak, edo bueltatzen direnak gomentatzen dituzulako. Hasieran beldurra nien batzuk ditut gogoan, eta gero asko gustatu zaizkidanak; esaterako, Angel Lertxundiren *Otto Pette* oso liburu ona iruditzen zait. Ramon Saizarbitoriaren *Gorde nazazu lurpean* liburu bat da baina bost narrazio labur agertzen dira eta horien barruan eleberririk batzuk, eta estilo erabat desberdina *Nora ez dakizun hori* Irati Jimenezena. Denbora pasatuta buruan gelditzen zaizkizun liburuak dira, eta askotan gomentatzen ditudanak.

#### **Poesia edo narrazioa?**

Irakurtzeko entretenimendurako erabiltzen denean eleberria izaten da, gehien bat. Poesia gutxiago. Agian, poesia gehiago idazten dut irakurtzen dudana baino. Hori egia da. Duela bi urte hasi nintzen Nafarroako Ateneoak martxan jarri zuen poesia irakurketa talde batean, Joxe Miguel Bidador poesia taldea, eta ongi etorri zitzaidan poesia irakurtzeko. Poesiak lan edo beste kontzentrazio bat eskatzen du. Nik behintzat ez dut poesia liburu bat hartzen eta zuzenean bukatzen. Poesia bat irakurtzen dut, gero beste bat, gaur hauek eta bihar beste batzuk. Aukera eman zidan poetak ezagutzeko ere. Hala ere, boladak izaten ditut. Baina, gehienbat, eleberria irakurtzen dut.

#### **IDAZLEA**

#### **Eta idazteko zer nahiago duzu, poesia edo narrazioa?**

Gaiaren arabera izaten da, momentuaren arabera... Narrazioak eskatzen du jarraipen



Nerea Balda Sanjuan idazleak Nafarroako Ateneoaren poesia saria irabazi du 'Begiradak' poemagatik.

handiago bat, poesia momentu batean idatz dezakezu, arratsalde batean. Gero agian bueltak eta aldaketak egingo dizkiozu, baina eleberririk jarraipen handiagoa eskatzen du. Orduan, ez nuke aukeratuko edo jakingo esaten zer nahiago dudana, eta besteetan bestera.

#### **Atzerrian liburutegi bateko irakurrien artean zegoen. Nola hartu zenuen?**

Nahiko sorpresa ona izan zen. Eibarko liburutegian zen eta 2020ko irakurrien artean zegoen Karmele Jaioren *Aitaren etxea*, Harkaitz Canoren *Fakirren ahotsa* eta gero ikusi nuen nire aurpegia zegoela. Sorpresa handia izan zen, batez ere, liburuek normalean ateratzen direnean izaten dituztelako irakurle gehien, eta bada denbora bat argitaratu zela. Nire burua Harkaitz Canoren eta Karmele Jaioren artean ikustea... polita izan zen.

#### **Argitaratu zenuenean, horrelakorik espero zenuen?**

Argitaratu nuenean ez nekien zer gertatuko zen. Horrelako zerbait idazten nuen lehendabiziko aldian zen, ez nintzen ezaguna... Ez nekien nolako ibilbidea izan zezakeen. Lehenengo hilabeteetan pare bat irakurle taldeetatik deitu zidaten eta hori bai aukera bat izan zela. Tarteka norbaitek esaten dit liburuak irakurri duela eta liburuak liburu dendetan ikusten dudenean, oraindik hortik dabilela dirudi. **Nolako esperientzia izan da irakurle klubetara idazle bezala joatea?** Oso interesgarria da bi aldeetatik: idazlearentzat eta irakurlearentzat. Hor jasotzen dituzunekin

## **"IDAZTEKO NARRAZIOAK JARRAIPENA ESKATZEN DU, POESIA AZKARRAGOA DA"**

ikusten duzu esan nahi zenuenez gain jendeak beste gauza batzuk jaso dituela. Oso interesgarria iruditu zitzaidan; zuk gauza bat kontatu nahi duzu, eta gero konturatzen zara zer nolako bidea hartzen duen irakurlearengaino iristeko. Hor jasotzen dituzu zuk nahi zenituenak eta beste asko. Nik hori dena esan dut, nahi gabe, agian. Baina hor dago. Irakurle bezala bizi izan ditudanean, idazleak gauzak zergatik egin dituen ikustea, nola bideratu duen...

#### **Nafarroako Ateneoaren poesia saria irabazi duzu. Espero zenuen?**

Zerbait aurkezten duzuen aukera beti hor dago. Irabazteko edo ez irabazteko aukera. Sorpresa polita izan zen. Egia esan, azken hilabeteetan ez dut asko idatzi, eta aukera zegoela entzun nuenean, jarriko nintzela pentsatu nuen. Batzuetan badirudi inspirazioa datorrela, baina ez da horrela. Batzuetan horretara jarri behar zara. Zerbait atera

zen eta egindakoarekin konforme gelditu nintzen. Egia da, beste lan batzuei denbora gehiago eskaini diedala eta gero ez dute horrelako arrakastarik izan. Nire burua idaztera bultzatzeko egin nuen. Epaimahaikideek esan zidaten lan dezente aurkeztu zirela, 29 bat, eta maila altua zela, zaila egin zitzaiela. Dirudenez, jendeak irakurri ez ezik, gehiago idatzi duela.

#### **Literatura sariak jasotzera ohituta zaudela esan daiteke. 'Atzerrian' horrela jaio zen, ezta?**

Iruñeko Udaleko Egile Berrientzako Literatur Lehiaketan parte hartu izan dut, eta liburu Getxoko Ramiro Pinilla sariketarik atera zen, bai. Idazten jartzen zara eta idazten duzu, baina sariketek helmuga bat jartzen dizute: halako narrazio bat egin behar duzu. Zure burua horretara bultzatzen duzu. Horretatik bizi ez garenok sariketek aukera ematen digute horretarako, helmuga bat izateko, motibazio bat. Behin aurkeztuta ikusi duzu gustukoa izan den, ona izan den eta abar. Ni gustura gelditu naiten, baina ikusi beharko da balio duen. Eleberriarekin gertatu zitzaidan idatzita neukala, apartatuta, ez nuen uste argitaratzeko modukoa izango zenik. Gero sariketaren bidez ikusi zen baietz.

#### **Zer sentitzen duzu orri txuri baten aurrean?**

Inspirazioa ez da hainbestetan etortzen. Ideia bat izan dezakezu momenturen batean, baina garrantzitsuena da jartzea. Azkenengo urteetan ikasi dudana zerbait da, nahiko argi dudana. Orri txuriaren aurrean sentsazio desberdinak daude. Batzuetan ideia jakin batekin joaten zara eta beste batzuetan ezer gabe. Esaterako, azkenengo lehiaketa honetarako atzerritarrei buruzko poema bat idatzi behar nuen. Batzuetan nola hasten zaren beldurra ematen du, baina beti daukazu aukera itzultzeko.

#### **Eta zerbait berezia behar duzu idazteko?**


Idazten dut oso modu desberdinetan. Isiltasunak laguntzen dit, baina idatzi izan dut telebista jarrira ez dakit non eta jendea nire atzetik pasatzen. Baina egia da bakarrik egoteak laguntzen didala. Etxean bakarrik gelditu naizenean aprobetxatu izan dut. Baina modu askotara idatzi dut. Gainera, gogoia eta ideia baduzu, nahiko argi ateratzen da.

# Euskarazko liburu irakurrienak Sakanako liburutegietan azken urtean


Helduak



**Aitaren etxea**  
Karmele Jaio




**Dendaostekoak**  
Uxue Alberdi



**Mesfidatu hitzez**  
Jon Arretxe



**Miñan**  
A. Arzallus eta I. Balde




**Amaren eskuak**  
Karmele Jaio



**Basa**  
Miren Amuriza



**Turista klasea**  
Kattalin Miner




**Fakirren ahotsa**  
Arkaitz Cano

Haurrak eta gazteak




**Onin bilduma**  
Ibon Martin



**Elmerren urtebetetzea**  
David McKee




**Ez dut ile kizkurrik izan nahi**  
Laura Anderson



**Xaxardi**  
Joana Ziganda eta Iker Uribe




**Ibaian behera**  
Magnus Weightman



**Dantzariak falta dira**  
Kate Hindley



**Augusta handimandiaren gutizia arriskutsuak**  
Laperla



**Max eta superheroiak**  
Rocio Bonilla



ASTEKOA

JOSUNE GORRITI FERNANDEZ

## Estralurtarrak eta etika

Estralurtarrak inbaditzea falta zaigu soilik, B saileko fikziozko filmetan agertzen diren zakar eta gaizto horietakoak, ez aldiz, E.T. gaixoa. Honako burutapen honen inguruan hainbat txiste egin izan ditugu azken urte luze honen errealitate distopiko gordina arintzeko.

Paul Krugenek 2008ko Ekonomia Nobel saria eskuratu zuen eta egun New York Times kazetan sinatzen dituen zutabetan mundu mailako politikari eta ekonomiari buruzko gakoak ematen ditu. "Guru" hau orain dela 10 urte estralurtarren balizko etorreraz aritu zen CNN telebistako eztabaida batean, 2008an eztabaida egin zuen krisiari aurre egiteko adibide jarriz. Esandakoa sare sozialetan jarraian biralizatu zen. Txistea egin bazuen ere, gogorarazi zuen arrakastatsua izan zirela AEBen Munduko II. Gerra garaian hartu ziren erabaki ekonomikoak aurreko depresio ekonomiko konpontzeko. Balizko mehatxu globalaren aurrean izugarriko gastu publikoa, bizigarri fiskalak ezarriko zirela eta jendarteak babesteko bat egingo lukeela behar ziren ondasunak ekoizteko. COVID-19aren izurriteak ekarriko digun egoera ekonomiko eta politikoari buruz, berriz, Krugenek dio, besteak beste, neoliberalismoaren paradigmaren bukaera honetan munduaren integrazio politikoa gutxituko dela, inoiz baino larriago izango den egoera ekonomiko iragarritz.

Baina ekonomia ez da inola ere aski mundu berria eta paradigma berria eraikitzeko. Adela Cortina filosofo valentziarrak *Etica Cosmopolita: una apuesta por la cordura en tiempos de pandemia* izeneko liburua argitaratu berri du. Bertan dio zentzuz jokatzeko dela egungo egoerari aurre egiteko giltza. Honela azaltzen du zentzuaren kontzeptua: justiziaren bihotzean tentua txertatzean datza zentzuaz aritzea. Hurrengo pandemiarako gure buruak etikaz jantzi beharko ditugula, eta hemendik aurrera elkartasuna zein gupida inoiz baino beharrezkoak direla bizirauteko eta, aldi berean, jendarte libre gauzatzeko. Zaintzaren etika garatzea nagusia da bere ustez. Bestetik hiritar obeditzaile bihurtzearen arriskua nabarmendu eta honen aurrean autonomian eta erantzunkidetasunean dago bertutea, bere aburuz. Demokraziarako egungo polarizazioaren arriskuak ere nabarmen zuten: bozkak lortzeko helburuarekin, errukirik gabe jokatzeko da politikan, soilik bakoitzaren eta gutxi batzuen onurarako.

Bitartean, zilborrari behin eta berriz behatzen dion politikarekin jarraitzen dugu Espainiako Estatuan, COVID-19aren laugarren olatuak itota. Madrilen hauteskunde borrokan murgildurik daude jo eta su polarizazio interesatuan eta arriskutsuan sakonduz. Bestetik ditugu txertoen ondorio latzen eztabaida kafkiano eta interesatuak...

Iruñean eta gure herrietan udaberri honetan, loreak bezain sarri, terrazak sortu dira. Ohitura honek laugarren olatua luzatzeko duen arriskuaren polemika alde batera utziz, ondo legoke "terraizing" honetan ere buruari ematea. Adibidez, paradigma eta aro aldaketaren inguruko galderak eta eztabaidak piztea, XVII., XIX. eta XX. mendeetan hain ospetsuak ziren tertulia kafetegietan egiten zuten modura. Erokeria? Agian bai. Baina estralurtarrak jada etorri dira eta ez ditugu ikusi nahi.

## GUTUNA

### Maiatzaren lehenean Altsasuko kaleak aldarri argiz beteko ditugu

#### IDOIA TORRENTE ARMENTIA

KONTSEILU SOZIALISTA SAKANAREN IZENEAN

Kontseilu Sozialista Sakana klase borrokari modu integral batean erantzuteko sortu zen orain dela hilabete batzuk. Belaunaldi ezberdinei borrokarako lekua irekitzeko eta esparruz esparru langileriaren behar eta interesen alde egiteko.

Honen baitan, Maiatzaren Lehenean Altsasuko kaleak hartzeko hautua egin dugu. Langileon Nazioarteko

Egunean langile mugimenduaren borroketatik irakaspenera atera eta egungo testuingurua erreparatu gure ekarpena egiteko.

Gizarte kapitalistan berrantolaketa bat ematen ari da, gure egunerokotasunean argi ikusten duguna, langileriaren eta bereziki, proletalgoaren bizi baldintzetan okertze nabarmena ematen ari da. Ezegonkortasunak, lan prekarioek, indarkeriak... ezaugarritzen dutelarik gure bizitza, gainera, askatasun ezak gogor kolpatu gaitu, kontrol soziala areagotuz, manifestatzeko eskubidea urratuz...

Horregatik, Altsasuko kaleak aldarri argiz beteko ditugu, antolakuntza komunista langileriaren askapena lortzeko bide erreal bakar bezala azpimarratuz. Zapalkuntza guztien aurkako eta klaserik gabeko gizarte bat eraikitzeko bidean, Euskal Estatu Sozialista eraikitzen gure alea jartzeko. Oztupo guztien gainetik eta determinazio osoz, klase batasuna eta langileriaren antolakuntza independente eta integrala defendatuko ditugu.

Maiatzaren 1ean 12:00etan Altsasun burutuko dugun mobilizaziora batzeko deia luzatzen dugu!

## OBJEKTIBOTIK



jon arretxe  
@ArretxeJon

-Egun ederra! Kontratua sinatu berri dut Touregan oinarritutako telebista-serie bat egiteko. Ea gauzatzen den!



**guaixe**  
SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

#### Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde  
fundazioa@guaixe.eus

#### GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika  
info@gkomunikazioa.eus  
Ainhora Etxeberria Pikabea  
gk@gkomunikazioa.eus

#### Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez  
admin@guaixe.eus

#### Zuzentzailea:

Miren Alonso Razkin

#### Lege gordailua:

NA-633/1995

Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

**Mank**  
s a k a n a

**BAZKIDEAK**



**Nafarroako Gobernua**  
Gobierno de Navarra



Dorrobarrak San Joan ermitaren ondoan 2018an.



Arakildarrak Aizkorben, joan den urteko ibarreko Zuhaitz Egunean.

## Despopulazioak ibarreko zazpi udalerrri jo ditu

Arakil, Uharte Arakil, Arruazu, Ergoiena, Bakaiku, Urdiain, Olatzagutia eta Ziordia dira

### SAKANA

Toki Administrazioako eta Despopulazio Zuzendaritza Nagusiak Nafarroako despopulazioari buruzko azterlana egin du. Ikerketa egiteko biztanleria dentsitatea eta biztanleria kopuruaren galera 30 urteko aldian (1989-2019) izan dituzte kontuan. Nafarroa guztia aztertzeaz aparte, udalerrriak eta populazio guneak ere aztertu ditu, udalerrri bakoitzari despopulazio arrisku maila bat emateko, halakorik balego. Sakanako 15 udalerrietatik zazpi daude despopulazioaren zerrenda horretan: Arakil, Uharte Arakil, Arruazu, Ergoiena, Bakaiku, Urdiain, Olatzagutia eta Ziordia. Hau da, 20.261 sakandarren %25,11 (5.088 pertsona) bizi dira zazpi udalerrri horietan.

Foru administrazioak ikerketa egiteko baliatutako bi parametroetan oinarrituta, bost maila ezarri dira. Lehenik, **despopulazio muturreko arriskua** (8 biztanle/km<sup>2</sup> edo gutxiagoko populazio dentsitatea). Maila horretan ez dago Sakanako herriarik. Bigarren maila da **despopulazio arrisku bizia** (12,5 bizt./km<sup>2</sup> eta 8 bizt./km<sup>2</sup> arteko populazio dentsitatea) eta hor Ergoiena dago. Hirugarren maila **despopulazio arrisku handia** (25 bizt./km<sup>2</sup> eta 12,5 bizt./km<sup>2</sup> arteko dentsitatea, eta biztanleria gutxitzea 1989tik 2019ra) Arakil, Uharte Arakil, Arruazu eta Ziordia daude. Laugarrenean, **gainbehera bizia** (biztanleria %15 edo gehiago murriztea 1989tik 2019ra eta 25 bizt./km<sup>2</sup>-tik gorako

biztanleria dentsitatea), Olatzagutia dugu. Eta, azken mailan, **gainbehera ertaina** (biztanleria %15etik behera murriztu zen 1989tik 2019ra eta 25 bizt./km<sup>2</sup>-tik gorako biztanleria dentsitatea), Bakaiku eta Urdiain daude.

### Balioa

Gobernutik adierazi zuten, "azterketa horri esker, despopulazio eremuak zehaztu dira, lurralde eta biztanleria egiturari dagokionez antzeko ezaugarriak dituzten udalerrriak bilduz, eta despopulazioaren eta erroinko demografikoaren aurkako politikak ezartzeko erabiliko da". Gaineratu zuten, "azterlan hori erreferentzia izango da Europako funtsak eta Espainiakoak modu egokian banatzeko".

Eta, horretarako, kontuan izan dituzte 2021-2027 Eskualde Garapenerako Europako Funtsoko erregelamenduko despopulazioaren aurkako neurrien irizpideak. Baita Erronka demografikoaren aurreko Neurrien Espainiako Plana ere. "Hori guztia kontuan hartuta, funts horiek behar handiena duenarengana iritsi behar dute, hau da, despopulazio arrisku handiena duten lekuetara".

Bestalde, zuten despopulazio maila handiena duten eremuek zahartzte indize handiagoak dituztela. Era berean, maskulinitate indizeak ere askoz handiagoak dira: 1,25 dira muturreko arriskuan dauden udalerrietan, eta 0,98, berriz, arriskurik gabeko udalerrietan.

# Kontzejuen biztanleriak gora egin zuen

Sakanako 16 kontzejuen biztanleria %1,86 igo zen. Herri horietan 1.365 sakandar bizi dira, ibarreko populazioaren %6,64

### Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Sakanako 16 kontzejuetako (Aizkorbe barne, egitura administratiborik ez badu ere) populazioak gora egin zuen eta joan den urteko ilbeltzaren lehen haletan 25 pertsona gehiago bizi ziren, %0,1eko hazkunde izanik. Ibarreko 20.261 sakandarretatik kontzejuetan 1.365 bizi ziren. Aurreko lau urteetan biztanleria galdu zuten 16 herri horiek, 50 herritar edo biztanleriaren %0,22 galduz. Beraz, urte bakarrean aurreko lau urtetan galdutako populazioaren erdia berreskuratu dute kontzejuak.

Ibarreko zazpi kontzejuetan igo zen biztanleria, guztien artean 41 herritar gehiago izanik: Ihabar (16), Izurdiaga (6), Dorrao (5), Aizkorbe (4), Hiriberri (4), Egiarreta (3) eta Etxarren (3). Gainontzeko bederatzi herrietan populazioak behera egin du, eta denen artean 16 herritar galdu dituzte: Unanu (5), Urritzola (2), Lizarraga (2), Lizarragabengoa (2), Errotz (1), Etxeberri (1), Ekai (1), Zuhatsu (1) eta Satrustegi (1).

Kontzejuen 2020ko populazioa 1999koarekin konparatuz gero, Arakilen biztanleriaren %9,44ko (86 biztanle) hazkundera izan da. Ergoienak, berriz, populazioaren %23,08 (111 biztanle) galdu du. Lizarragabengoa %3,13 (1) hazi da.

## Biztanleria

UDALERRIA / Kontzejua	Biztanleria udalerrian	Biztanleria kontzejuan
Arakil	962	
Egiarreta		77
Ekai		34
Errotz		67
Etxarren		157
Etxeberri		60
Hiriberri Arakil		114
Ihabar		136
Izurdiaga		178
Satrustegi		53
Urritzola		19
Zuhatsu		42
Aizkorbe		25
<b>Irurtzun</b>	2.247	
<b>Irañeta</b>	169	
<b>Uharte Arakil</b>	789	
<b>Arruazu</b>	106	
<b>Lakuntza</b>	1.275	
<b>Arbizu</b>	1.109	
<b>Ergoiena</b>	370	
Dorrao		114
Lizarraga		170
Unanu		86
<b>Etxarri Aranatz</b>	2.497	
Lizarragabengoa		33
Etxarri Aranatz	2.464	
<b>Bakaiku</b>	360	
<b>Iturmendi</b>	411	
<b>Urdiain</b>	661	
<b>Altsasu</b>	7.465	
<b>Olatzagutia</b>	1.490	
<b>Ziordia</b>	350	
<b>GUZTIRA</b>	<b>20.261</b>	<b>1.365</b>



Autokarabana gunean bizikletak garbitzeko aukera ere izanen da.

## Autokarabana eta bizikletendako gunea prest

Autokarabanak dituzten irurtzundarrek erabiltzeko aukera dute, baina udaletxean izena eman behar dute

### IRURTZUN

Dagoeneko bukatu dira Irurtzungo autokarabanendako gunea egiteko lanak, 8 edo 10 ibilgailu hartzeko tokia du. Lanak ilbeltzaren 12an hasi zituen Lakita enpresak eta joan den astean despeditu zituen. Lanek 51.000 euroko (BEZ kanpo) aurrekontua zuten, eta udalak Cederna Garalurren 46.785,23 euroko dirulaguntza jaso zuten lanak finantzatzeko.

Lanak bukatu badira ere, Aitor Larraza Carrera alkateak azaldu duenez, "oraindik ez da mustu. Informazio kartela egitea eta jartzea falta da. Hura jartzean erabilgarri egonen da gunea". Egin berri den espazioak hiru eremu ditu: autokarabanen ur biltegia betetzeko eta ur grisak eta beltzak deskargatzeko gunea, bizikletak garbitzeko mangera duena; autokarabanak aparkatzeko lekua eta egonlekua (mahaiak, paperontziak eta abar).

Autokarabana dutenek kontrol sisteman banku txartelaren bidez identifikatu beharko dute sartzetakoan eta ateratzerakoan. Ibilgailua sartzegatik bost euro pagatu beharko dira eta horrek autokarabana bi egunez bertan izateko aukera emanen dio.

Autokarabanak dituzten irurtzundarrei ere zerbitzua emanen die guneak. Izan ere, ibilgailuko ur grisak eta beltzak husteko aukera izanen dute, baita ur biltegia urez betetzeko ere. Horretan interesa dutenek maiatzaren 15eko 14:00ak arteko epea dute udaletxean edo [www.irurtzun.eus](http://www.irurtzun.eus) bidez eskabidea aurkezteko. Honako baldintzak bete beharko dira: Irurtzunen erroldatuta egotea eta ibilgailuaren zirkulazio zerga Irurtzunen ordainduta izatea. Izena ematen duten irurtzundarrek 15 euro pagatu beharko dute. Udalak kobratzea garrantzaroaren lean egingen du.

# Mankomunitatearen konpost planta martxan

Sakanako Mankomunitatea Arbizon bertan hasi da ibarrean jasotako materia organikoa kudeatzen. Orain arte Kaparrosoko plantara eramaten zen. 855.638,88 euroko inbertsioa izan da: %80 Nafarroako Gobernuak eta %20 Estatuak eta Partzuergoak

### SAKANA

Sakanako Mankomunitateko Hiri Hondakinen Zerbitzuak Arbizon duen hondakinen tratamendu plantan hilaren 15etik martxan da konpost planta. Horren ondorioz, Sakanan bertan jasotzen den materia organikoa ibarrean bertan kudeatu eta konpost bihurtzen da. Orain arte ibarreko materia organikoa Kaparrosoko Biogas Plantara eramaten zuen Mank-ek. Zerbitzutik jakinarazi denez, joan den urtean Kaparrosora 684,5 tona materia organiko eramane ziren. Hori 7.953,61 kilo CO<sub>2</sub> ren parekoa da. Mank-ek horien garraioagatik eta tratamenduagatik 31.875,38 euro pagatu zituen. Dagoeneko pagatu beharko ez duen kopurua konpost hondakinak bertan tratatuko direlako.

David Oroz Alonsok, Mank-eko lehendakariak esan duenez, "Sakanan bertan kudeatzea gure materia organikoa konpost bihurtzeko prozesu osoa norabide egokian doan berria da". Gaineratu duenez, "guretako garrantzitsuenak bere azpiegiturak eta tresna propioak garatzen jarraitzea da, bertatik bertara hobeto kudeatu dezakegulako egunerokoa. Ingurumenaren oreka lehentasuna da Sakanarendako, konpostaren

Plantak 100 metro luze eta 25,2 metro zabal ditu, guztira 2.520 m<sup>2</sup>. MANK

gaian garbiki erakusten ari garen moduan".

Zerbitzuko teknikariek jakinarazi dutenez, konpost plantaren irekierarekin konfinamendu garaiak geroztik itxitako auzokonposten kudeaketak aldatetako izanen ditu. Informazio kanpaina bat egitekotan dira, mantentze lanak egiteko bizilagun boluntarioak aurkeztzen diren auzoetan izanen baitu segida auzokonposteraren erabilerak. Beraz, boluntarioek izena ematen badute auzokonpostagailuak erabiltzen segituko dira, eta ho-

rretarako abiatuko du informazio kanpaina hori Mank-ek.

Etxeetan sortzen diren hondakinen artean kopuru handiena materia organikoa da, %42. Horregatik garrantzizkoa da egoki bereiztea. Horrela, hondakinen kudeaketa errazteaz aparte, materia organikoa konpost bihurtzen da. Sakanako Mankomunitateko Hiri Hondakinen Zerbitzuak joan den urtean 200.000 litro konpost banatu zizkien hala eskatu zuten 750 sakandarrei. Perimetro itxiera bukatzean hartzeko aukera izanen da.

**EUSKALTEL NAFARROAN HEDATZEN  
ARI DA TELELAND-EN ESKUTIK.  
Sakana aldean lan egin nahi duzu  
gurekin?**

**BIDALI CURRICULUMA: [rrhh@teleland.com](mailto:rrhh@teleland.com) EDO  
DEITU: 943 31 86 06**



## Etxebizitzarako sarbidea errazteko akordioa sinatuta

Altsasuko alkate Javier Ollo Martinezek eta Jose Maria Aierdi Fernandez de Barrena Nafarroako Gobernuko presidenteordeak lankidetzaz hitzarmena sinatu dute. Horren ondorioz, Altsasuko Udala Nasuvinsako alokairu poltsaren programan sartu da, hutsik dauden etxebizitzaren lagapena sustatzeko eta herriko alokairu etxebizitzaren eskaerari erantzuteko.

Hitzarmenean jaso denez, udalak lagunduko du altsasuarren artean erabiltzen ez diren etxebizitzaren errentamendua zabalteko eta sustatzeko, horiek mobilizatzea lagungarri izan dadin alokairuko etxebizitzaren eskaerari erantzuteko. Bestalde, gobernuak aholkularitza eta prestakuntza emanen die udal langileei, erabilerarik gabeko higiezinak atzeman eta zerbitzu hori eman dezaten. Nasuvinsak kudeatzen duen alokairu poltsak eskaintzen dituen berme garrantzitsuenak dira: lehenengo maizterra bizitzera sartzen denetik alokairuko errenta unean-unean eta aseguratuta kobratzea, etxebizitza egoera onean bueltatzea (etxebizitzaren erabilera normalak eragindako ohiko higadura izan ezik) eta etxean sor daitezkeen ezbeharrak estaltzen dituen arrisku anitzeko aseguruia (edukitzailearena) kontratatzea.

## Altsasuko Udalaren bi tabernak errentan hartzeko deialdia

Atabo Altsasu SM udalaren enpresa publikoak du herriko kirol azpiegiturak kudeatzeko ardura. Enpresak Dantzaleku kirol guneko eta Burunda frontoiko tabernak errentan emateko deialdia egin du. Bi kasuetan urtebeteko kontratua da eskaintzen dena, gehienez, beste lau urtez luzatu daitekeena. Udalen enpresak jasotzen dituen eskaintza onuragarrienei emanen die ostalaritza establezimendu horien kudeaketa. Baina urteko, gutxienez, 2.400 eurokoa izan beharko du (200 euro hilabeteko).

Dantzalekuko taberna hartzen duenak hura kudeatzeaz aparte, kirol guneko aldagelak garbitu beharko ditu kirol ekitaldiak egiten diren larunbat eta igandeetan. Atabo Altsasu, SMren kontura izango dira garbiketako horniduren gastuak. Bestalde, Usolarraingo aisialdi gunearen garbiketaz ez du egin beharko. Frontoiaren deialdiko berritasuna da hura hartzen duenak ez duela pilotalekuaren mantentzeaz eta garbiketaz arduratu beharko. Bai horiek bai igerilekuen mantentzea udalaren enpresa publikoaren esku gelditu dira. Deialdian interesa dutenek Atabo Altsasuko gerentziarekin harremanetan jar daitezke [gerencia@ataboaltsasu.com](mailto:gerencia@ataboaltsasu.com) epostaren edo 948 562 786 telefonoaren bidez.



Atxiloketak salatzeako manifestazioa.

## LABeko kideen atxiloketa salatzeako protestak

Ostiralean, 12:30ean, LABen Altsasuko egoitza parean. Larunbatean, 17:00etan, Iruñean

ALTSASU  
LABeko sei kide atxilotu zituen Espainiako Policia Nacionalak asteartean. Bat berehala aske utzi zuten eta gainontzekoek egun bat eman zuten polizia etxean. Atxilotuetako bi garbiketako sektoreko ordezkariak dira, eta besteak, LABen zerbitzu pribatuaren federazioko ordezkariak. Azken horien artean dago Imanol Salinas altsasuarra. Bi ekintza sindikalengatik atxilotu zituzten sindikalistak. Alde batetik, CEN patronalaren Iruñeko egoitzan hauts gorria botatzeagatik. Horren ondorioz, LABeko bi kide atxilotu zituzten, bat aske utziz. Patronalaren egoitzan egindako protestagatik mehatxuak, bortxa eta kalteak eragitea leporatzen diete. Atxiloketak salatzeako asteartean bertan batzarra eta manifestazioa egin zen Altsasun.

LABeko kideek nabarmendu dutenez, "soldata arrakala salatzeako eta garbiketen sektoreko hitzarmenaren negoziazioetan zegoen blokeoa salatzeako beste ekintza" banagatik atxilotu dituzte sindikalistak. "Hau da, emakumezkoen lan baldintza kaskarrak salatzeako eta haien eskubideak aldarrikatzeko bi ekintza. Emakume sindikalista horien jardura sindikala baldintzatu eta eragotzi nahi dute".



Asteazkeno, 11:00etan, osasun etxeen parean bilkurak egiten dira. UTZITAKOIA

## Aldarrikapena osasun etxeen paretik Iruñeko kaleetara

Nafarroako Osasun Plataformak maiatzaren 15erako deitu du manifestazioa Iruñean

### SAKANA

Nafarroako Osasun Plataformak *Zaindu zure osasun etxea. Zaindu zeure burua. Oinarritzko Osasun Laguntza Aurrera* leloa aukeratu du mobilizaziorako. Plataformako kideek manifestazioaren deialdia egitean azaldu zuten, "herrialdeko osasun etxeetako arretak gainbehera handia izan duela, bai herritarrekiko eta bai profesionalakiko". Gaineratu zuten, "pandemiak egoera areagotu egin du, eta 2008tik jasaten ari garen murrizketei murrizketa berriak gehitu zaizkie, batik bat aurreikuspen faltagatik, gabezia historikoagatik eta orain COVID zentroetan pilatu direlako giza baliabide eta baliabide material berri guztiak; guztiaren ondorioz, osasun etxeetako profesionalak kalitatezko arreta eskaintzeko gaitasunik gabe utzi dituzte".

Deitzaileek nabarmendu dutenez, "COVID garaian galdu dugun aurrez aurreko arreta oraindik ez dugu berreskuratu; zenbait osasun etxetan hitzordua hartzeko 12-15 egun luze behar dira, eta plantilla horiek indartu beharrean, txertaketa zentroetara eramaten dituzte langileak". Lehen arretako osasun arreta zerbitzuen egoeraren diagnosian gaineratu zuten, "gaixotasun 'arruntak' dituzten pertsonak ez dira behar bezala artatzen; baliabideak dituzten pertsona askok aseguru pribatuak kontratatzen dituzte; arreta eskuratzeko unean arrakala teknologikoa sortzen ari da eta beste hainbat kontu".

### Elkarrekin erantzuteko deia

Plataforma deitzaileko ordezkarien iritziz, Osasun Departamentuak "alde batera utzi ditu osasunerako prebentzioa eta hezkuntza (osasun arretaren ikuspegi komunitarioaren zutabeak) eta eskariak erantzutera mugatu da; horren ondorioz, merkatu hobi bat sortu zaie gero eta handiagoak diren aseguru pribatuei". Manifestazioaren deitzaileen iritziz, "herritarren eta profesionalen arteko harreman giroa ezinbestean hondatzeko arrisku larrian dago; izan ere, langileak ahaztuta daude, askotan alde batera uzten dituen kudeaketa baten ondorioz, eta horrek higadura eta motibazioa galtzea eragiten die. Bien bitartean, herritarrek ez dituzte beren beharrak asetzen".

Lehen mailako osasun arretaren egoera ikusita, Nafarroako Osasun Plataformako kideen iritziz, "erreakzionatzeko unea da, eta erreakzioa zeregin komuna da. Profesionalak eta herritarrek erantzun bateratua emateko unea da, arreta prekarizatzen eta langileen lan baldintzak murrizten ari den kudeaketa tamalgarri baten aurrean".

### Sinadurak

Altsasun, Olatzagutian eta Zierdian lehen arretako osasun zerbitzu egokia eskatuz sinadurak biltzen ari dira makina bat burundar. Nafarroako Osasun Zerbitzuaren Iruñeko erregistroan sinadurak aurkezteko txanda astearterako eman diete.



**EGUN ON SAKANA**  
Goizero 10:00-12:00  
Errepikapena 14:00-16:00  
web bidez: [www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)

107.3 FM  
**beleixe**



# D eredua, "errespetu eta bizikidetzarako atea"

Kontseiluak, Behatokiak, euskalgintzako eta hezkuntzako eragileek eta ikastetxe publiko eta ikastoletako gurasoek "errespetua eta bizikidetzara helburu, euskarazko D ereduak norbanako zein komunitatean dakartzan onurak azpimarratu dituzte"

## SAKANA

Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako matrikulazioa maiztaren bigarren erdialdean izanen da. Eta hori gogoan, Nafarroako euskalgintzako eta hezkuntzako eragileek, eskola publikoetako eta ikastoletakoekin batera, gurasoei seme-alabak D ereduaren matrikulatzeko gonbidapena egin diete. Guztien izenean Euskalgintzaren Kontseiluko idazkari nagusi Paul Bilbaok esan zuenez, "askotarikoak gara Nafarroan, eta elkarren arteko errespetuan eta bizikidetzan oinarritutako gizarte aldarrikatzen dugu. Euskara da bide hori zabaltzeko dugun atea, eta oztupoak oztupo, ate horiek zabaltzen jarraitu behar dugu Nafarroa osoan". Bilbaok gaineratu zuenez, "euskarazko hezkuntzaren inguruan gabiltzan eragileok besoak zabalik gaudela komunitatea are handiago izateko, inor kanpoan ez uzteko, inor kanpoan ez geratzeko".

Kontseiluko eleduak azaldu zuenez, "eredurik inklusiboena da, zalantzarik gabe, euskarazko eredu". Jakintzan, kohesioan, berdintasunean eta harremanetan jarri zuen fokua. Ezagutzari dagokionez, euskarazko ereduak haurrei beste edozein eredu baino gehiago ematen dietela aldarrikatu zuten eragileek; hizkuntza bat ezagutzeko aukera, eta, ondorioz, ingurunea euskararen betaurrekoetatik ikustea. Hain zuzen, jakintza hori Nafarroako errealitatea hobeto ulertzeko, Nafarroa bera sakonago ezagutzeko eta Nafarroan osoki bizitzeko gako delako adierazi zuen Bilbaok. "Ingurunearekin harreman estuagoa lortzeko eta komunitatea egiteko balio du euskaraz", gehitu zuen.

Berdintasunean oinarritutako gizartearen ere jarri nahi izan zuten azpimarra agerraldian. "Guk gizarte kohesionatua nahi dugu, herritar guztiek aukera berdina



Euskalgintzako eta hezkuntzako eragileak elkarrekin. UTZITAKOIA

izatea nahi dugu", adierazi zuen. "Geurea irakatsi, baina besteena ezagutu, besteengandik ikasi". Eta hain zuzen, hori bera da euskarazko ereduaren hartu eta emateko baliagarria den hezkuntza ereduaren emateko eta hartzeko aukera eskaintzen duen ereduaren euskararekin loturarik izan ez duten horien guztien beharrak asetzeko. "Ikasleen jatorriari erreparatu dio euskarazko ereduak, bai, baina ikasle guztiak berdintasun irizpidearen arabera hezten ditu. Horregatik, gutxiago duenari gehiago ematen dio, zertarako eta derrigorrezko hezkuntza amaitzen dutenean euskararen gaitasun berdina izan ditzaten", adierazi zuen Bilbaok.

## Gaitasunak eta eskubideak

Hizkuntz Eskubideen Behatoki-zuzendari den Agurte Gubekak euskarazko ereduaren zein berdintasunean oinarritutako hezkuntzaren alde egin eta euskarazko ereduaren bigaitasun azpimarratu zituen: «alde batetik, euskara eta gaztelania menperatzeaz aparte, hirugarren hizkuntza bat egoki menperatzea ahalbidetzen duen eredu bakarra

da; bestetik, hizkuntza guztien balio eta garrantzi berdina jabetuz, tokiko kultura eta izaera anitzeko aitortza eta errespetua lantzeko balioko die haurrei, harremanetan bizikidetzan hezteko oinarritzko hazia eskainiz".

Gaubekaren hitzetan, migratutako pertsonen askotan beraien ez den eredu bezala ikusten dute D ereduaren erakunde publikoetatik beste eredu batzuetara bideratzen dituztelako. "E-donork izan beharko luke bertoko hizkuntza ikasteko eskubidea eta aukera berdintasuna".



Traktorea Arakil ibai gaineko zubia zeharkatzen.

## Zubia konpontzeko dirulaguntzaren zain

Eraikuntzaren arkuaren harriak falta dira eta zartatu handia du. Lanek 200.000 euroko aurrekontua dute

### HIRIBERRI ARAKIL

Herritik iparraldera 150 metro dago Arakil ubelde gainetik pasatzen den zubia. Bi arku dituen harrizko zubia da. Eta eraikuntza beharrezko pertsona bat balitz, larri zaurituta dagoela esanen genuke. Hala ondorioztatu zuen Hiriberri Arakilgo Kontzejuak agindutako ikerketak. Izan ere, arkuetako batean harriak falta dira, zartatu handi bat du. Ondorioz, erortzeko aukerak ditu zubiak. Horren jakitun, kontzejuak zubitik pasatzeko bi muga jarri ditu: gehieze ere 10 tona arteko ibilgailuak pasa daitezke eta gehiezezko abiadura 20 kilometro orduko baino gehiago ezin da izan. Kontzejuko buru Javier Arrieta Anizek azaldu duenez, "zubia soro eta larre batzuetara eta basora joateko bide bakarra da".

Arrietak azaldu duenez, "zubiaren egoeraren azterketa egiten

kontzejuak 15.000 euro inbertitu zituen. Baina konponketa ezin dugu guk egin. Gutxi gorabehera 200.000 euroko aurrekontua du, eta, esaterako, kontzejuaren aurtengo aurrekontua 24.905 eurokoa da". Horregatik, Nafarroako Gobernuak toki azpiegiturak berri edo egokitzeko dirulaguntza noiz aterako zain daude kontzejuaren zubia konpontzeko proiektua aurkezteko.

Hiriberri Arakilgo Kontzejuak aurtengo inbertsioetara 11.211,47 euro bideratzea aurreikusiko du. Baina zubia konpontzeko dirulaguntza jasotzen duten edo ez, horren arabera erabakiko dute zer egin. Izan ere, kontzeju etxean egiteko zenbait lan aurreikusitak dituzte. "Barrutik dena eginda dago. Atzeko aldean dugun biltegiko atea aldatu nahi dugu eta eraikina kanpotik txukundu, pintatu", azaldu du kontzejuko presidentek.

**Txalaparta**

Erabili musukoa eta mantendu distantziak

**Taberna**

948 467 070  
Zumalakarregi plaza  
**ALTSASU**

**PORTUKO**

okidengia

Altsasu: 948 563 822 (denda) | 948 467 153 (lantegia)  
Etxarri Aranatz: 948 460 988

## Hirugarren txertaketa eguna gaur Irurtzongo kiroldegan

Hiru egunetan 1.700 bat txerto jarri dira. Gaur 60 eta 65 urte bitarteko pertsoneri jarriko diete

SAKANA

Irurtzongo kiroldegia guztiz itxuraldatu da hiru egunez, eta Osasunbidearen COVID-19 gaitzaren kontrako txertaketa gunea hartu baitu. Aizkorbe eta Arrua-zu arteko makina bat sakandar pasa dira handik txertoa jasotzera. Herenegun 80 urte baino gehiago zituzten 350 bat pertsonak jaso zuten Pfizer txertoaren bigarren dosia. Atzo 70 eta 79 urte arteko 650 pertsonak zuten hitzordua aipatu txertoaren lehen dosia jasotzeko. Bi egunetan 09:00etatik 15:30era egon ziren txertatzen. Eta, gaur, azkenik, 60 eta 65 urte bitarteko herritarrak daude deituta, 700 bat, eta haiek Astra Zeneca etxeko txertoa jasoko dute. 09:20etik 18:00etara egonen dira txertoak jartzen.

Osasunbidetik jakinarazi dutenez, Etxarri Aranazko oinarritzko osasun eskualdeko 70 eta 79 urte bitarteko 582 sakandarrek Pfizerren bigarren txertoa maiztaren 4an jasoko dute. Baina ez dute jakinarazi noizko izanen duten txanda 60 eta 65 urte artekoek. Eta Altsasuko oinarritzko osasun eskualdeko txertaketa kanpainari buruz ere ez dute jakinarazi noiz izanen den.

Dagoeneko ibarreko populazioaren %9,7 gaixotuta da COVID-19 gaixotasunarekin. Pandemia hasi zenetik Sakanan 1.981 positibo zenbatu dituzte. Horien %40,73 aurtengoak dira. Izan ere, ilbeltzean 113 positibo zenbatu zituzten, otsailean 148, martxoan 170 eta apirilean, herenegun arte, 380 kasu izan dira. Hilaren 15etik 21era 121 kasu erregistratu zituzten. Horietatik %71,07 hiru herritan zenbatu dituzte: Etxarri Aranatz 41, Altsasun 26 eta Arbizun 19. Zazpi egun horietan beste dozena bat herrietan ere positiboak agertu dira: 8 Irurtzunen, 5 Iturmendin eta Olatzagutian, 4 Lakuntzan, 3 Bakaikun eta Urdiainen, 2 Lizarragan eta bana Hiriberrin, Ihabarren, Irañetan, Uhartan eta Unanun.

Apirileko lehen 21 egunetan Etxarri Aranatz 106 koronabirus positibo izan dira, Altsasun 96 Arbizun 59 eta Urdiainen 27. Apirileko kasuen gainontzeko %24,21 (92) 14 herrien artean izan da: Irurtzun 25, Olatzagutia 15, Lakuntza 14, Iturmendi 7, Lizarraga 6, Bakaiku 6, Etxarren 5, Uharte 5, Unanu 4, Hiriberri 1, Ihabar 1, Irañeta, 1, Dorrao 1 eta Lizarragabengoa 1.

### DUELA 25 URTE...



### Gazte Taldea sortu zen

Lakuntzako Euskararen Aldeko Batzordeak soziolinguistika ikastaro batzuk antolatu zituen. Euskarak zuen egoera eta erabilera aztertu zituzten, baita landu zitezkeen motibazioa eta praktikak ere prestatu zituzten. Ikastaro horietatik sortu zen Gazte Taldea. Taldekideak arrasatear batekin bildu ziren eta hark taldearen helburuak, norabidea eta beste zehazten lagundu zien. Bitartean, Batzordeak mintzapraktika saioak eta euskara ikastaroak antolatu zituen.

# Duela ehun urte ere herria itxi zuten

Herrialdean barna nafarrerria gaixotasun kasuak agertzen hasi ziren, eta Etxarri Aranazko Udalak jakin zuenean Lizarragan gaitzarekin gaixotutakoak zeudela, zaindariak jarri zituen herri sarreran

**Alfredo Alvaro Igoa** ETXARRI ARANATZ Gertuko norbait hiltzea latza da. Kolpea handiagoa da hildakoak senide bat baino gehiago direnean. Eta pandemia egoera betean ingurukoak gaizkitzen ikusteak kezka sortzen dizu. Eta larritu egiten zara bere osasun egoerak okerrera egin duela jakitean. Eta pentsamendu beltzak etortzen zaizkizu. Eta burukoerrot lanean hasten da, uste okerrenak behin eta berriro ehotzen. Egoera hainbestearinokoa da, pertsonen arima oraindik gehiago ez kolpatzeko, hil ezkilak jotzeari uzten zaiola.

Marka-marka eginda gelditu zitzairen etxarriarrei 1918ko gripea. Gogor jo zuelako pandemiak eta 123 etxarriar hil zituelako, populazioaren %7,9. Zenbat senide, zenbat lagun, zenbat aldamen, zenbat sufrimendu... Beraz, ez da harritzekoa hiru urteren ondoren, herrialdean nafarrerria gaitzaren kasuak agertzean, Etxarri Aranatz 106 koronabirus positibo izan dira, Altsasun 96 Arbizun 59 eta Urdiainen 27. Apirileko kasuen gainontzeko %24,21 (92) 14 herrien artean izan da: Irurtzun 25, Olatzagutia 15, Lakuntza 14, Iturmendi 7, Lizarraga 6, Bakaiku 6, Etxarren 5, Uharte 5, Unanu 4, Hiriberri 1, Ihabar 1, Irañeta, 1, Dorrao 1 eta Lizarragabengoa 1.



Etxarri Aranazko plaza. WWW.ETXARRIARANATZ.EUS

maiztaren 14an hartu zuen udalak.

Rafael Carasatorre Vidaurre ikerlariak *Etxarri Aranatz 1900-1940* liburuan jaso duenez, Martin Angel Liciaga, Francisco Echarri eta Fernando Goya zaindari jarri zituzten, gau eta egun. *El Pensamiento Navarro* egunkariko korrespondentek maiztaren 22an argitaratutako kronikan, azokaren berri emateaz aparte, zera jakinarazi zuen: "Alkate jaunak, nagusien aginduak betez, herritar guztiak txertatzea eta birtxertatzea agindu du, horrela

nafarrerriaren inbasio bat bera ere saihesteko (...). Eta agindu hori betez, gaitza agertuko den beldurrez, eskolako haurrak txertatu dira eta herri guztia txertatzen segitzen da; gripearen zigor beldurgarriaren oroitzapen tristea baitugu".

Garagartzaroaren 11an Etxarri Aranazko Udala bildu zen eta, jakin zuten Lizarragan nafarrerria gaitza ia erabat desagertu zela, erabaki zuten zaintza hilaren 13an kentzea, eta hala lize-ratarrek herrian sartzeko aukera izatea.

## Putre saldoak bi ardi hil zituen eta hainbat zauritu

Saien zauriak albatariak sendatu zizkieten Utzuarren. Basozainek erasoaren berri ofiziala eman zuten

LIZARRAGA

"Hori hondatzea! Sekula halakorik!" Nafarroako Gobernuak basozain baten esanak dira horiek, putre saldo batek Jon Ruiz lizearraren artaldea eraso ondoren. Bi ardi hiltzeaz aparte,

makina bat ardi zauritu zituzten, guztiei ipurdian zauriak eginez. Eta putre saldoak ez zituen ardi gehiago akabatu Lizarragara joaten zen Oier Berastegik esku hartu zuelako. 13:15 aldera Utzuarren ikusi zituen sai batzuei

susmo txarra hartu zien. Hara joan eta "300 bat putre egonen ziren, ardiak atzetik korrika ari ziren. Nabari zen artaldearen atzetik gora eta behera ibiliak zirela, nekatzeko eta txarrantxan kontra jartzeko". Egoera ikusita 112ra hots egin zuen Berastegik. Gainera, putre saldoa uxatzen saiatu zen, "baina ez ziren joaten, 5-6 metro mugitzen ziren, eta gero buelta egiten zuten. Gu joanez gero artaldea berriro eraso-ko zuten". Basozainek beheko partean ikusi zituzten saiak.

## Irurtzongo Udalak lankidetzaren proiektuak lagunduko ditu

Hirugarren Munduko herrialdeekin lankidetzaren proiektuak egiteko Gobernu Kanpoko Erakundeei (GKE) dirulaguntza emanen die Irurtzongo Udalak. Horretarako laguntza deialdia egin du, 10.970 euro dituen. Deialdiaren helburua ere bada irurtzundarrak sentsibilizatzea eta herritarren parte hartzea sustatzeko jarduerak egitea, haien bidez Iparraren eta Hegoaren arteko desoreka ekonomiko, sozial eta kulturalen arazoak inuruko jokabideak aldatzeko.

Irurtzongo Udalen deialdian irabazi asmorik gabeko GKEk eta elkartasun erakundeek parte har dezakete, betiere egoitza soziala edo delegazio iraunkorra Nafarroan badute eta Nafarroako Elkartearen Erregistroan inskribatuta badaude. Proiektuak Irurtzongo Udalen Idazkaritzan aurkeztu beharko dira, CD-R formatuan. Erakunde bakoitzak edo elkartasuneko erakunde bakoitzak proiektu bakar bat soilik aurkez dezake.

## Altsasun etxebizitzari buruzko inkesta egiten dute

Nafarroako Estatistika Institutuak Etxeetako Gastuen Inkesta egiten du Altsasun. Helburua da "Nafarroako errealitate gehiago hurbiltzeko eta etxeetako gastuen jarraipenetik abiatuta gizarte eta ekonomia politikak planifikatu ahal izateko". Hitzordua lotu ondoren joanen dira institutuko langileak etxetara, egoki kreditatuta.

## Bi kontzejuk ordenantza fiskala onartu dute

Arakilgo gainontzeko herrien pare jartzeko, Ekaiko eta Satrustegiko kontzejuek ordenantza fiskala behin betiko onartu dute. Horren bidez bi kontzejuek tasa bat kobratzeko aukera izanen dute herriko eremu publikoko lurzoru, lurpe edo lurgainaren erabilera pribatibo edo aprobetxamendu berezia egin dezaten hornidura zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresei; beti ere, zerbitzu horiek interes orokorrekoak direnean edo herritar guztiei edo frankori eragiten dietenean.

Bereziki, zerbitzu horien barnean daude ura, gasa, argindarra, telefonia finkoa eta mugikorra eta beste komunikabide mota batzuk. Horiek ematen dituzten enpresek kontzejuen jabari publikoak okupatzen duten sare edo antena finkei bitartez, osorik nahiz partez, tasa ezarriko zaie. Zehazki, enpresa horiek, salbu telefonia mugikorraren kasuan, kontzeju mugen barnean urtero lortzen duten fakturazioaren diru sarrera gordinen %1,5.

## Olatzagutiko Udalak osasun arreta egokia eskatu du

Olatzagutiko Udalak osasun eskualdean "osasun langilerik ez dagoelako eta osasun arreta nahikoa ez delako" kezka azaldu du. Eta Nafarroako Gobernuari eskatu dio "osasun arretaren gabeziak konpontzeko behar diren neurriak har ditzala". Osasun arloko profesionalak behar direla eta, "hutsik dauden plazak betetzea bermatzeko" eskatu dio.

## Internet loturarekin bueltaka Lizarragan

Kontzejuko eta udaleko ordezkariak Nafarroako Gobernuarekin bilduko dira asteazkenean

### LIZARRAGA

Lizarragan Internet konexioa Sisnet bidez iristen da. Artxuetan dagoen errepikagailu batek bidalitako seinalea jasotzeko, Lizarragako etxeetan antena parabolikoak baino pixka bat txikiagoa den tresna dute jarrita. Sistema horren bidez daude lizarratarrak sarera lotuta. Zerbitzu egonkorra ematen du, baina ez da oso azkarra. Horregatik, Lizarragako Kontzejua herriaren Internet lotura hobetzeko aukerak aztertzen ari da. Eta, horregatik, Nafarroako Gobernuko Eraldaketa Digitaleko Zuzendaritza Nagusiko ordezkariarekin bideo bilera egingen dute heldu den asteazkenean, egoeraren berri eman eta dauden aukeren berri jasotzeko.

Emeterio Senar Elso Ergoienako alkateak ere parte hartuko du bertan. Izan ere, ibarreko udaletxea Lizarragako Intxorreta kalean dago eta Internet sarearekin arazoak dituztela azaldu du alkateak: "langileak lanak ezin egin dabilta. Azkartasunik ez du sareak. Sintetetik diote ordenagailuaren kontua dela, baina berriak dira". Alkateak azaldu duenez, Unanun eta Dorraon zuntza sartuta dute eta halako arazorik ez dute.



Ur beltzena, euri urena eta ur hornidura sareak eta zoladura berrituko dituzte.

## Hiru kaleetako zorua eta sareak berrituko dira

Dona Luzia kaleko 21 eta 58 zenbakien artean, Dona Marian 9-29 artean eta Mirarian 12-16 artean

### ZIORDIA

Ziordiko Udalak herriko hainbat gunetan azpiegiturak eta kaleak berritzeko proiektua egin zuen irailean. Bost gunetako sareak eta zoladura berritzeko asmoa du udalak. Lanak faseka egitea erabaki du eta lehendabizikoan hiru kale zati konponduko nahi ditu udalak: Dona Luzia, Dona Maria eta Mirari kaleetan. Hurrengo fase baterako utziko ditu Dona Luzia kaleko 6. zenbakitik 18ra eta handik 40 arteko kale zatia eta Mirari kaleko 1 eta 5 zenbakien arteko kalea eta haiei perpendikularra den Texeria 25 eta 27-A zenbakiak hartzen dituen kale zatia.

Hiru kale zati horietako sareak eta zoladura berritzen interesa duten enpresek beraien proposamenak hilaren 30eko 15:00etara arte aurkeztu ditzakete Nafarroako lizitazio elektronikoko plataforman. Ziordiko Udalak

lanak 329.899,29 euro (BEZ kanpo) balio duela adierazi du. Aurrekontuari aurre egiteko udalak Nafarroako Gobernuaren 180.000 euroko dirulaguntza du, herrialdeko aurrekontuen negoziazioan EH Bilduren emendakina onartu ondoren. Lanak kalitate eta prezio eskaintza onena egiten duen enpresari emanen dizkio. Lanek urte erdi iraungo lukete.

Olatz Irizar Martinez alkateak azaldu duenez, lanak aurtzen egingen dira. "Bi kale berritzeko ditugu ere. Baina guztiak batera egitea aurrekontu handia denez, eta, gainera, herria hankaz gora utziko genukeenez, bi faseetan egitea erabaki dugu". Bigarren faserako utzi diren kaleetako lanak egiteko ere dirulaguntza beharrezkoa izanen du udalak: "Nafarroako Gobernuaren hurrengo Toki Azpiegitura Planean aurkeztuko ditugu lan horiek" zehaztu du alkateak.

**Amaya**  
OXINDEGIA

**ALTSASU**  
678 323 403  
• Iruña Hiribidea, 48  
948 468 026  
Zumalakarregi Plaza, 3  
670 389 017  
• San Juan Kalea, 50  
948 562 185  
• Otadiko Kristo Deuna, 19

**UHARTE-ARAKIL**  
691 83 41 36  
• Mandikoa, 3

**VITORIA-GASTEIZ**  
• Postas, 33  
945 148 368  
• Arriagako Atea, 12

**ETXARRI-ARANATZ**  
948 461 660  
• Kale Naguasía, 4

**OLAZTI**  
948 468 755  
• Orreaga Kalea, 1

**ARAIA**  
945 314 572  
• Andoni Urrestarazu, 3



AITZURRAK  
ZORROZTU!



Urtero moduan udan lorategiaz eta baratzeak emango digun uztaz gozatu nahi izanez gero badakigu lanean jarri beharra dugula gaurtik. Oraingoan bi gai ei helduko diegu, lehenik lorategiaz gozatzeko zenbait aholku aipatuko ditugu eta ondoren baratzeke lurra prestatzeaz arituko gara.

## Lorategia

Datozen hilabeteetan temperatura altuak etorriko dira eta landareek zainketa batzuk beharko dituzte eguraldi baldintzei arazorik gabe aurre egiteko eta itxura ederra izan dezaten. Beraz, aholku batzuk lutzatuko dizkizuegu udan zuen lorategiak osasuntsu egon daitezen bai barrutik bai kanpotik ere:

- Ureztatzeari buruz adibidez esan oso garrantzitsua dela arratsaldean ureztatzea, iluntzen hasten denean. Maiztasuna klimaren eta kokapenaren arabera aldatuko da, baina orokorrean baratzezainak, landare lore dunak eta belarrak 1-2 egunetik behin ureztatu behar ditu, eta gainerakoak astean bizpahiru aldiz ureztatu ditzake.
- Munduko leku askotan uda sasoi beroa eta lehorra da eta izurriteak nonahi ager daitezke, hazkunderako, garapenerako eta biderketarako baldintzak zaildu ditzaketenak. Landareen kaltetzea ekiditeko, ondo zainduta egon behar dute (tratamendu naturalak badira hobe) eta uretazketak eta ongariak neurrian erabili behar dira.
- Lorategian alfombra berde ederra edukitzeko komeni da belarra gutxienez astean behin edo hamar egunean behin mozte. Belarra oso azkar hazten da sasoi honetan.



INFORMAZIOA: EKO GUNEA.EUS

**Baratzea**  
Landareak, abonoak  
eta fitosanitarioak

**13**  
udaberri  
loredenda

Garzia Ximenez kalea 31  
(Altsasu)   
610 098 595

Etixerako  
banaketa  
zerbitzua

**Lorategia**  
Zuhaixkak eta  
garaiko landareak

Jardineretan landaketa lanak egiten dira

**%10eko deskontua**  
espezie bereko 10 landare erosita

**lorea**  
lore denda

www.floristerialorea.net   
948 467 426 • 685 722 112  
San Juan kalea 52, Behea • Altsasu

**izarte**  
Lorezaintza zentroa

**LOREZAINZA LANAK  
EGITEN DITUGU**

Astelehenetik  
ostiralera  
9:30-13:30  
16:30-19:30

Larunbata  
9:30-13:30

Isasia Industrialdea  
(Altsasu)  
Enkarguak:  
670 063 093  
jardineria.izarte@gmail.com

# Baratzea

## EREITEA

	NEGUA	UDABERRI	UDA	UDAZKENA	UZTA JASOTZEA
ZERBAK	[Green bar]				3 - 4 hilabete
ZIAZERBAK	[Green bar]				2 - 3 hilabete
URAZAK	[Green bar]				2 - 4 hilabete
PERREXILA	[Green bar]				3 hilabete
ERREFAUAK	[Green bar]				4-5 aste
AZENARIOAK	[Green bar]				3 - 4 hilabete
PIPERRA	[Green bar]				5 - 6 hilabete
TIPULA	[Green bar]		[Green bar]		5 hilabete
BABARRUNAK	[Orange bar]	[Orange bar]	[Orange bar]	[Orange bar]	2 - 3 hilabete
KUIATXO	[Orange bar]	[Orange bar]	[Orange bar]	[Orange bar]	3 hilabete
LUZOKER	[Orange bar]	[Orange bar]	[Orange bar]	[Orange bar]	2,5 hilabete
TOMATEAK	[Orange bar]	[Orange bar]	[Orange bar]	[Orange bar]	4 - 5 hilabete
PATATA	[Orange bar]	[Orange bar]	[Orange bar]	[Orange bar]	3 - 4 hilabete
ERREMOLATXA	[Orange bar]	[Orange bar]	[Orange bar]	[Orange bar]	3 - 4 hilabete
ORBURUAK	[Orange bar]	[Orange bar]	[Orange bar]	[Orange bar]	1 urte
ALBAHAKA	[Orange bar]	[Orange bar]	[Orange bar]	[Orange bar]	1 hilabete
KALABAZA	[Orange bar]	[Orange bar]	[Orange bar]	[Orange bar]	4 - 5 hilabete
PORRUAK	[Orange bar]	[Orange bar]	[Orange bar]	[Orange bar]	6 - 7 hilabete
MARRUBIAK	[Orange bar]	[Orange bar]	[Orange bar]	[Orange bar]	Apirila - Maitza

Gure baratze lanek neketsuena lurra prestatzea izaten da. Baina, horrez gain, askotan ez dugu jakiten nondik hasi. Hona hemen jarraibide batzuk:

- 1. Belar arrotzak kentzea:** Baratzea belar arrotzez beteta baldin badago, lehendabizi aitzurrarekin kendu beharko ditugu eta lurzorua maila berean moztu saiatuko gara. Belar hau konpostatzera eramango dugu eta ahalik eta lur gutxien botatzen saiatuko gara; izan ere, lurra konpostatze prozesua zailduko baitu eta gainera, baratzean dugun lurrik onena galduko dugu.
- 2. Laiatu:** Laiaren laguntzaz, lursaila laiatuko dugu, beti atzerantz, aurretik laiatu duguna zapaldu gabe. Ez dugu inoiz lurra irauliko mugak nahastuko baititugu eta gure lurreko bioaniztasuna kaltetuko baitugu. Harrien eta sustrairen bidez zabaltzen diren belar arrotzak kentzeko ueña izango da.
- 3. Ongarritzatu:** Martxoan sasoi ona da lurra ongarritzatzeko. 2-3 kilo konpost edo simaur kopuru egokia izango da. Lurraren gainazalean zabalduko dugu. Nahiz eta simaur edo konpost freskoa erabili daitekeen, egokiagoa da konpost edo simaur heldua erabiltzea, horrela zenbait arazo ekidingo baititugu.



**ezkurra**  
lorenzaintza

Sasi kentze lanak  
Baratze lanak  
Zuhaitzen inausketa lanak  
Belar mozketak  
**SAKANA OSOAN ZEHAR**

686 898 659    
[www.ezkurralorezaintza.com](http://www.ezkurralorezaintza.com)

BARATZA ETXEAN



# Sunamuno

Iruñeako etorbidea, 31 · Altsasu  
948 56 28 29  
[www.piensosunamuno.com](http://www.piensosunamuno.com)







## Denda

Zure baratza eta lorentzako behar duzun guztia

## AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN  
BERRI ASTEAZKENEN EGURDIA  
BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 /  
kultura@guaixe.eus

## OSTIRALA 23

**ALTSASU** Gazte agenda: *Zer liburu da? jokoa.*  
18:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.

**URDIAN** Liburuaren eguna.  
Joxean Lacallaren *Si te mando una carta* liburuaren aurkezpena.  
18:30ean, liburutegian.

**LAKUNTZA** Reincidentes taldearen *Radicalmente*

## ZORION AGURRAK



Oihane Doral Zelaia  
3 urte iada!! Zorionak  
Altsasuko aitona eta amonaren partez!  
Pedro eta Ana Mari



**acústico** kontzertua.  
Sarrerak agortuta.  
19:00etan, kultur etxean.

## LARUNBATA 24

**IRURTZUN** *Gazte langileok Klase batasuna* jardunaldiak.  
Hitzaldia: *Langile mugimendutik ateratako irakaspenak.*  
Sakanako GKS-k antolatuta.  
18:00etan, kultur etxean.

**ALTSASU** Gazte agenda: *Escape room.*  
18:00etan, Intxostiapuntan.

**OLAZTI** Askoa Etxebarrieta *La pulga bailaoraren* eta Miren Amuriza bertsolariaren *Gorria* ikuskizuna.  
19:00etan, kultur etxean.

## IGANDEA 25

**ALTSASU** Naturanitzean gozatzeko. Ibilaldia menditik familia artean artzairen bizimodua ezagutzeko. Allira edo Sarabera.  
3-4 orduko ibilaldi erraza. Euskaraz.  
10:00etan, Dantzalekun.

**IRURTZUN** *Ilargiaren atzean* familiarateko antzerkia euskaraz.  
3 euro.  
18:00etan, kultur etxean.

**ALTSASU** Euskal Presoak Euskal

## ZINEMA

## ALTSASU

IORTIA KULTUR GUNEKO  
ARETO NAGUSIAN

*Los Estados Unidos contra Billie Holiday* gaurkotasunezko filmaren emanaldia  
Ostirala 23: 19:00  
Igandea 25: 19:30

*Nomadland* gaurkotasunezko filmaren emanaldia  
Osteguna 29: 19:00

IORTIA KULTUR GUNEKO  
ARETO TXIKIAN

*Dating Amber* zineforum filmaren emanaldia  
Igandea 25: 19:30

Herrira elkarretaratzea.  
20:00etan, plazan.

## ASTELEHENA 26

**ALTSASU** Liburuaren astea.  
Mari Romeroren *¿Por qué no nos dejáis entrar?* liburuaren aurkezpena.  
18:00etan, lortia kultur gunean.

## ASTEARTEA 27

**OLAZTI** Sormen tailerra: *Liburu bat* egingo dugu. 10-12 urte.  
Izena ematea:  
[euskara1@sakana-mank.eus](mailto:euskara1@sakana-mank.eus).  
Sakanako Mankomunitateak antolatuta.  
17:00etatik 18:30era, Akelarre ludotekan.



**OLAZTI** Koskobiloko Fosilen eta mineralen erakusketa.  
*Apirilaren 30era arte. Astelehetik ostiralera, 16:30tik 20:30era.*  
Liburutegian.

**ALTSASU** Liburuaren astea. *Lehen Hezkuntzako haurrendako desberdintasunak murrizten* tailerra Manolita Thunders artistarekin.  
Izena ematea: Liburutegian.  
17:30ean, lortia kultur gunean.

## ASTEAZKENA 28

**ALTSASU** Liburuaren astea.  
Hitzaldia: *Tinta gorri tinta urdin mugak puskatzeko literatura* Patxi Zubizarreta idazlearekin.  
18:00etan, lortia kultur gunean.

## OSTEGUNA 29

**OLAZTI** Koskobiloko Fosilen eta mineralen erakusketa Benjamin Botzen bisita gidatua.  
Izena ematea: 948 564 858 telefonoan.  
19:00etan, liburutegian.

## IRAGARKI SAILKATUAK

## LANA/NEGOZIOAK

## LAN ESKAINTZA

**Administrari ofizial izateko lanpostua, aldi baterako kontratuarekin betetzeko lanpostua:** Etxari Aranatzeko Udalak hautapen prozesu bat egingo du Ofizial administrariaren lanpostua bat sortzeko etorkizunean aldi baterako kontratazioak egiteko. Eskabideak aurkezteko epea 2021eko apirilaren 29an amaizuko da, 14:00etan. Deialdiaren oinarriak udalaren webgunean kontsulta daitezke: [www.etxariaranatz.eus](http://www.etxariaranatz.eus), udal-bulegoetan, Altsasuko Nafarroako Enplegu Zerbitzuan eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean <https://bon.navarra.es/es/annuncio/texto/2021/77/15>.

## HIGIEZINAK

## SALDU

**Etxari Aranatzeko, Enfermogurutzeko dermionan, 8500m<sup>2</sup>-ko lursaila salgai:** guztiz hesituta dago eta 8 metro eta erdiko sakonera duen putzua du. Deitu 669 809 955 tfnora.

## OHARRAK

**Olatziko irakurle taldea:** Siri Hustvedt-en *Todo cuanto amé* eleberraren inguruko solasaldia apirilaren 30ean, 20:00etan Olatziko liburutegian.

**Aroztegiako akanpadarako deia:** Baztan Aroztegiako hirigintza proiektua gelditzeko akanpada apirilaren 16an hasi zen. Haren bidez egitasmoari erresistentzia egiten ari dira. Eragileei babesa eta inplikazioa eskatu die. Bestalde, akanpadan parte hartu nahi dutenek ere aukera dute. Horretarako, [aroztegiagelditukodugu@ni.eus](mailto:aroztegiagelditukodugu@ni.eus) helbidera idatzi behar da, zein egunetan joan nahi den zehaztuz eta gaua han pasa behar duen ere. [iragarki@guaixe.eus](mailto:iragarki@guaixe.eus)  
[www.iragarkilaburak.eus](http://www.iragarkilaburak.eus)

**Bazkide zozketa**

**1. SARIA**  
LACTURALE: Esneki lotea  
GAZTEZULO: 3 hilabetez doan

**2. eta 3. SARIAK**  
LACTURALE: Esneki lotea


ESKELA

**Maria Luisa Zelaia Mendia**  
Guaixe Fundazioko kolaboratzailea



"Une latz hauetan bat egiten dugu familiaren saminarekin"




  
**DEKOVEN NAVARRA**  
CARPINTERÍA DE P.V.C.

[info@dekovennavarra.com](mailto:info@dekovennavarra.com)  
[www.dekovennavarra.com](http://www.dekovennavarra.com)  
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia · **ALTSASU**  
Telf./Faxa: **948 468 360** · Telefono mugikorra: **690 641 860**


ESKELA



**Maria Luisa Zelaia Mendia** 

Marili,  
beti gure bihotzetan egongo zara

**Ihalar, Alaine, Juna eta Aran**

ESKELA



**Maria Luisa Zelaia Mendia**  
'Mari'

Ez zaitugu inoiz ahaztuko

**Bitolki Taberna**

ESKELA



**Maria Luisa Zelaia Mendia**

Beti laguntzeko prest zegoen bizilagunari,  
maitasunez

**Antonio, Marian, Naroa eta Maite**

ESKELA

**Maria Luisa Zelaia Mendia**

Itsas bazterrean  
Eman zenidan hitza  
Apar gainean bitsa  
Uhin gailurrean

**Monika Etxebarria eta Castillo Suárez**

ESKELA



**Maria Luisa Zelaia Mendia** 

Ez nau beldurtzen baratzatikan  
azken loreak biltzea.

**Arbizuko Jaustan itxekuek**

ESKELA



**Maria Luisa Zelaia Mendia** 

Urak dakarrena urak daroa  
zuk emandakoa gurekin gelditzen da.

Bidaia on.

**Arbizuko Gartzandia Razkin Familia**

ESKELA



**Jose Mari Mercero Lizarraga**  
II. urteurrena  
(2019ko apirilaren 25ean hil zen)

Alaitasunaren iturritik edan genuen elkarrekin,  
oroimenean izango zara zu beti gurekin

**Etxekoak**  
(Unanu)

## JAIOTZAK

- **Insaf El Akri**, apirilaren 5ean Olaztin
- **Amaiur Azpiroz Mendez**, apirilaren 18an Altsasun

## HERIOTZAK

- **Jose Luis Huarte Ansa**, apirilaren 15ean Uharte Arakilen
- **Maria Luisa Zelaia Mendia**, apirilaren 19an Altsasun

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.



**IZARRA**  
HEMEN, ZURE ONDOAN  
AQUÍ, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk  
zeinetan norbait  
ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

**ALTSASU** Santa Cruz, 6  
**ETXARRI ARANATZ** Nagusia, 2

948 05 90 90 · [www.izarratanatorio.com](http://www.izarratanatorio.com)

**IRACHE**  
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

- ☎ 948 19 70 70
- 🐦 @Grupolrache
- 📘 Grupolrache
- 🌐 [www.tanatoriosirache.es](http://www.tanatoriosirache.es)



Ezkurdiak eta Galarzak hasierako ligaxkako 2. itzulian 22 eta 17 irabazi zieten Altunari eta Mariezkurrenari. JUANTXO LUSA

# Ezkurdiak eta Galarzak ezin dute hutsik egin

**PILOTA** Altunaren eta Mariezkurrenaren kontra bihar irabaztera behartuta daude finalean egoteko aukeraren bat izan nahi badute. Elezkanok eta Zabaletak etzi Peña eta Albisu dituzte arerio eta irabazleak hanka eta erdia baino gehiago izango du finalean

Binakako finalerdietako bigarren jardunaldiaren atarian gaude, eta asko dago erabakitzeke. Larunbatean lehen jardunaldiko galtzaileak –Ezkurdia-Galarza eta Altuna-Mariezkurrena– elkarren kontra ariko dira Logroñoko Adarragan (17:00etan, ETB1), eta igandean, Bilboko Bizkaian lehen jardunaldiko irabazleak lehiatuko dira, Elezkanok II.a-Zabaleta eta Peña II.a-Albisu (17:00etan, ETB1).

## Ezkurdia, final baten atarian

Final latza izango da Ezkurdiak eta Galarzak Altunaren eta Mariezkurrenaren kontra jokatu duten partida. Bi bikoak galtzetik datoz, minduta daude eta guztiz presionatuta, txapelketan bizirik jarraitu nahi badute ezin baitute hutsik egin.

Lehen jardunaldiko partida galtzean "egoera nabarmen zailtzen dela" aitortu zuen Joseba Ezkurdiak asteazkeneko material aukeraketan. "Gauzak ongi egiten baditugu aukerak izango

ditugu. Beraz, gogotik egin behar dugu lan. Beti ahaleginean. Lehiakorrak izan beharra dugu, eta pazientziarekin eta buruarekin jokatu" nabarmendu zuen. Gainontzeko pilotariet baino pilotakada gehiago jotzen dituela galdetu zitzaion. "Nire jokatzeke moduatik gehiago sartzen naiz jokoan. Eta aktiboa sentitzeko modua da baita ere" erantzun zuen. Aurrelari arbizuarrak txapelketan partida onak eta okerragoak izan dituela onartu zuen, "baina garrantzitsuena da finalerdietara fisikoki oso ongi eta txisparekin iritsi naizela".

Hori eta gehiago behar du arbizuarrak, Adarragako tentsio handiko partida izango baita. Ladis Galarzak azaldu zuen "hil ala biziko partidak jokatzerako ohituta" daudela. Baraibarkoak gaineratu zuen "fisikoki ongi eta kolpez fresko" sentitzen zela. Eta lehen aldiz Binakako finalerdietara sailkatu izanarekin "gainean zeraman zama eta presioa arinduta zaiola" nabarmendu zuen.

Ezkurdiak eta Ladis Galarzak "pilota politik eta azkarrak" hautatu zituzten, aurreko aste-koak baino bote gutxiagokoak. Altunak eta Mariezkurrenak pilota lasaiagoak aukeratu zituzten, "ongi kokatzea eta sentsazioak hobetzea ahalbideratuko digutenak".

Altunak azaldu zuen buru beldurri ibili direla larunbateko partida prestatzen. Izan ere, Elezkanoren eta Zabaletaren kontra egin zuten partida txarri buelta eman nahi dio bikoak. Mariezkurrenak nabarmendu zuen finalerdietan ez dagoela partida errazik, eta Ezkurdiak arerio latza dela gaineratu zuen. "Ezkurdiaren kontrako partidak tentsio handikoak dira. Josebak

**"LEHIAKORRAK IZAN BEHAR DUGU, ETA PAZIENTZIAREKIN ETA BURUAREKIN JOKATU" JOSEBA EZKURDIA**

pilota zail asko kentzen dizkio atzelariari, eta erritmoa berehala aldatzen du".

Hasierako ligaxkan elkarren kontra aritu zirenean, lehen jardunaldian Altuna eta Mariezkurrena gailendu ziren (11 eta 22) eta bigarrenean Ezkurdiak eta Galarza (17 eta 22). Hortaz, larunbatean edozer gerta daiteke.

## Zabaleta, faboritua

Igandean lehen jardunaldiko bi biko irabazleen arteko lehia hartuko du Bizkaia pilotalekuak. Bi bikoak, Elezkanok-Zabaleta eta Peña II.a-Albisu, lanak oso ongi eginak iritsi dira partidara. Elezkanok eta Zabaleta hasierako ligaxkako lider sendoak izan dira; erakustaldia erakustaldiaren atzetik, hasieratik txapelketa irabazteko bikote faboritua dira eta oraindik ere hala izaten jarraitzen dute. "Pozik gaude orain arte egindakoarekin eta bikote bezala funtzionatu dugulako" nabarmendu zuen Zabaletak finalerdietako lehen jardunaldian ikusgarri aritu eta Altuna eta Mariezkurrena 7 tantotan utzi eta gero.

Bere aldetik, Peña II.a eta Albisu txapelketako sorpresatako bat dira, bi Jon Ander gipuzkoarrak txapelketa bikaina egiten ari baitira. Finalerdietako lehen jardunaldian 17 eta 22 irabazi zieten Ezkurdiari eta Ladis Galarzari, neka barratuta bukatu zuten partida gogor-reen. "Gustura gaude, baina oraindik lan asko dago egiteko, bi partida geratzen dira. Bigarren puntua lortzea garrantzitsua da eta igandean partida on bat egiten saiatuko gara" azaldu zuen ama lakuntzarra duen Ataungo atzelariak.

Bi bikoak lasoi betean daude. Hasierako ligaxkan elkarren artean jokatuak bi partidatan Peña eta Albisu gailendu ziren, lehenean 20 eta 22 eta, bigarrenean, 15 eta 22. Hala ere, igandeko partidarako katedrak Elezkanok eta Zabaleta faborito jotzen ditu eta apustuak euren alde aterako dira. Baina ez da partida erraza izango. Zabaleta eta Albisu bi jotzaile erraldoien arteko sokatira ikusgarria aurreikusten da, baita aurrelarien arteko lehia ere. Partida handi baten aurrean gaude, eta asko dago jokoan, irabazten duenak hanka eta erdia baino gehiago izango baitu maiatzaren 9an Bizkaia pilotalekuan jokatu den finalean.

## 1. MAILA AUTONOMIKOA

**11. JARDUNALDIKO EMAITZAK**  
Lagun Artea - Iruña **1-1**

**SAILKAPENA**

1. MAILA AUTONOMIKOKO 1. MULTZOA

**1** Erriberri **27**  
**9** Lagun Artea **7**

**HURRENGO JARDUNALDIA**

IGANDEAN

**17:00** Zarramonza - Lagun Artea (Arroniz)

## Puntu banaketa Zelai Berrin

Iruñaren kontra baja ugari izan zituen Lagun Artea, baina ongi aritu zen. Parez pare ibili ziren bi taldeak, Ansorenak Lagun Artea aurreratu arte. Lakuntzarrek partida ixteko bi gol aukera oso argi izan zituzten, baina ez zituzten gauzatu, eta Iruñak berdintzea lortu zuen. Etzi Lagunek 5. den Zarramonza du aurkari.

## ERREGIONALA GIZONAK

**11. JARDUNALDIKO EMAITZAK**  
Altsasuk atseden jardunaldia zuen

**SAILKAPENA**

ERREGIONAL MAILAKO 5. MULTZOA

**1** Gazte Berriak **21**  
**6** Altsasu **13**

**HURRENGO JARDUNALDIA**

IGANDEAN

**20:00** Liceo Monjardin - Altsasu (Soto Lezkairu)

## Altsasuk Liceo Monjardin aurkari

Atseden jardunaldia zuenez, Altsasuk postu bat behera egin du sailkapenean eta egun 6. postuan dago. Etzi 8. den Liceo Monjardin dute aurkari gorritxoek.

## PILOTA Azpirozek hirugarren izan nahi du Lau eta Erdian

Gaur, ostirala, Nafarroako Gazteen Lau eta Erdiko Txapelketa-Guillermo Mazo Memorialeko finalak jokatuko dira Lekunberriko Jaian Jai pilotalekuan, 18:30ean. Txapelketa Nafar Kirol Jolasen barruan dagoenez, finalak ateak itxita jokatuko dira.

Lehenik eta behin 3. eta 4. postuak erabakitzeke finala jokatuko da. Irurtzungo klubeko Adrian Azpirozek Ultzamako Mikel Mikelarena izango du aurkari. 3. postua lortzea, hori da Adrian Azpirozen nahia, eta ea etxera ekartzetik duen. Final handian, Javi Murillo (Ultzama) eta Arai Murillo (Oberena) lehiatuko dira txapela preziatua janzteko borrokan.





Ioseba Zirkuitu Txapelketan. MARIELA LARRAZ

## Ioseba Fernandezen beste lau urrezko domina

**IRRISTAKETA** Nafarroako Pista Txapelketan bi lortu zituen eta Zirkuitu Txapelketan beste bi

Apirilaren 10ean eta 11n Nafarroako Iristaketa Pista Txapelketak jokatu ziren Amaya klubean eta apirilaren 17an eta 18an Nafarroako Zirkuitu Iristaketa Txapelketak Antoniuttin. 200 irristalari inguru lehiatu ziren, horietako 15 Sakana Iristaketa Taldekoak. Lan bikaina egin zuten irristalari sakandarrek.

Senior mailako Ioseba Fernandez Fernandez irristalari iturmendiarrak (Berriri Ere taldea) sasoi bikainean dagola erakutsi zuen eta guztira urrezko lau domina lortu zituen. Nafarroako Iristaketa Pista Txapelketan bi urrezko domina eskuratu zituen eta Nafarroako Iristaketa Zirkuitu Txapelketan beste bi.

**Espainiako Txapelketa gehiago** 2021eko 4 Espainiako Iristaketa Txapelketatik 3 Iruñean jokatu dira. Maiatzaren 8an eta 9an haurren eta gazteen mailako Espainiako Zirkuituko Txapelketak izanen dira Antoniuttin, eta aldi berean Espainiako Kimuen Mailako Kopa jokatu da. Maiatzaren 22an eta 23an junior eta senior mailako Espainiako Zirkuituko Txapelketak erabakiko dira Antoniuttin, eta ekainaren 12an eta 13an junior eta senior mailako Espainiako Pista Txapelketak Amayan.

# "Harro nago Federazioen Artekoan egindakoarekin"

**IRATI IGOA SESMA PALISTA**

**PALA** Espainiako Federazioen Arteko Emakumeen Paleta Gomako txapeldunordea da Etxarri Aranazko palista, eta lortutakoarekin "oso pozik" dago, "ez zuelako espero"

**Maidar Betelu Ganboa** ETXARRI A.

Espainiako Federazioen Arteko 30 metroko frontoiko Paleta Goma eta Frontenis Txapelketak jokatu ziren apirilaren 15etik 18ra Canalsen (Valentzia). Nafarroako selekzioarekin aritu zen Irati Igoa Sesma palista etxarriarra. **Federazioen Arteko Emakumezkoen Buruz Buruko Paleta Goma Txapelketan, hasierako ligaxkan bi partida jokatu zenituen, lehendabizikoa Lucia Densaren kontra (Valentzia) eta bigarrena Paoma Kumariren kontra (Kanariar Irlak). Bi partidak irabazita sailkatu zinen final laurdenetara. Ongi hasi zinen.**

Egia esan, espero nuena baino hobe aritu nintzen. Bi urte daramatzat modalitate honetan, eta ikastera joan nintzen, nire jokoa ahalik eta hobekien egitera; disfrutatzen. Baina txapelketa hasi ahala jokoa hobetu nuela konturatu nintzen eta nire bertsiorik onena eman ahal nuela. Lehenengo partida irabaztea lortu nuen, bi setak irabazita (10 eta 2 eta 10 eta 5). Banekien bigarren partida irabazten banuen final laurdenetarako sailkatuko nintzela, eta orduan gogo gehiagorekin aritu nintzen bigarren partidari, eta hau ere irabazi nuen (1 eta 10 eta 8 eta 10).

**Euskal Herritik kanpokoan maila ona da?**

Izugarrizko maila dute. Nabarmenezkoa da eurek denboraldi osoan modalitate berbera lantzen dutela eta guk ez. Esaterako, gu denboraldi hasieran paleta normalarekin aritzen gara, gero trinkete txapelketan, eta denboraldi bukaeran 30 metroko txapelketa dugu. Eurak zentratuago daude euren modalitateetan.

**Final laurdenetan Nafarroako selekzio taldekide Maddi Galarza izan zenuen aurkari.**

Hemen gehiago sufritu nuen. Kanpoko frontoian jokatu genuen eta sekulako beroa zegoen, hezetasun handia... Fisikoki biak ongi gaudenez, pilota guztiak



Irati Igoa Sesma, Valentzian jokatutako txapelketan. NAFARROAKO PILOTA FEDERAZIOA

## "FINALEAN BUKAERARAINO BORROKATU NUEN; HORREKIN GERATZEN NAIZ"

borrokatu genituen eta, partida luze eta gogorra izan zen. Tantzaz, azkenean partida aurrera ateratzea lortu nuen, bi setak irabazita (15 eta 6 eta 15 eta 11). **Hortaz, beroak eragina izan zuen.** Bai, sufritu genuen. Hemen frontoi estalian jokatzen dugu, ez gaude ohituta kanpoan aritzera. Eta gainera bero horrekin... baina berehala ohitu ginen. **Final erdietan Nafarroako selekzio Irati Saraguetarekin izan zenuen aurkari, aspaldiko ezaguna. Kasu honetan estuagoa izan zen lehia.** Irati Saraguetarekin makina bat txapelketa jokatu izan ditut, baina modalitate honetan ez nintzen sekula berarekin aritu orain arte. Oso finalerdi estua izan zen. Lehendabiziko setean 14 eta 12 nindoan aurretik, sakean falta egin nuenera arte. Aurrea hartu zidan eta lehenengo seta berarendako joan zen (14 eta 15). Bi-

garren setean lasai aritu nintzen, nire jokoa egiten, tanzaz tanto, eta markagailuari buelta eman nion (15 eta 11). Eta berdinketa apurtzeko setean niri tokatu zitzaidan sakea egitea, 4 eta 0 jarri nintzen aurretik eta azkenean 10 eta 5 irabazi nion. Izugarri poztu nintzen.

**Finalera iritsiko zinenik ez al zenuen espero?**

Hasieran ez. Baina lehen bi partidak irabazi nituenean aukerak banituela jabetu nintzen.

**Igande goizean jokatu zenuen final handia, Ingrid Ruizen kontra (Murtzia). Aurretik ezagutzen al zenuen?**

Joan den urtean txapelketa berean aritu nintzen eta hortik ezagutzen nuen. Maiderrren kontra jokatu zuen orduan; Maiderrrek irabazi zion, baina banekien sekulako neska zela eta bizitza guztia daramala paleta gomara jokatzen. Munduko Txapelketan aritu izan da, eta banekien partida oso zaila nuela aurretik. Dena den, lasai nongoen, nik lortu beharrekoa lortu bainuen: finalean egotea. Finalean egotea saria izan zen. **Aurrean arerri latza zenuela kontuan hartuta, nola joan zen finala?**

Lasai atera nintzen, ez nuelako ezer galtzeko. Lehenengo seta

nahiko estua izan zen, parez pare aritu ginen. Bi tanto jarri zen bera goitik, gero nik berdindu nuen eta beste bi tantotan aurreratu nintzen, gero berdindu zuen... Une horretan atsedena eskatu zuen eta horren ondotik aurreraka hasi zen eta joan egin zitzaidan (15 eta 9).

**Urduri jarri zinen?**

Ez. Ni ez naiz urduri jartzekoa. Bigarren setean antzekoa gertatu zen. Ni aurreratzen hasi nintzen (5 eta 0), baina berak berdintzea lortu zuen eta aurreratu ninduen. Dena atera zitzaion, eta ez zegoen ezer gehiago egiterik (15 eta 8). Bukaeraraino borrokatu nuen eta horrekin geratzen naiz.

**Federazioen Arteko Buruz Buruko Emakumeen Paleta Gomako txapeldunordea zara, eta hori ez da edonolokoa.**

Oso kontentu nago. Ez nuen ezer espero eta egindakoarekin harro nago, oso pozik. Trofeoa horren gertu ikusteak alde batetik pena ematen dizu, baina ni oso kontentu itzuli naiz, espero baino hobe aritu naizelako.

**Gipuzkoa, Errioxa, Araba, Bizkaia, Nafarroa eta Iparraldeko federazioek elkarren artean jokatzen duten GRAVNI txapelketa jokatu al da?**

Saiatuko dira beste txapelketa mota bat egiten, baina GRAVNI Txapelketa den bezala ez da egiten, pandemia dela eta. Datorren helburua maiatzean Mendillorri jokatu den Espainiako Trinteketa Opena izango da. Paleta Goman ariko naiz Binakakoan, Uxue Murilloekin bikotea osatuta. Aste honetan bertan hasi ditugu entrenamenduak. Eta ekaineko bigarren asteburuan Klubean Arteko Espainiako Txapelketa izango dugu.

**Frontoian aritzeaz gain Mulier taldeko futbolaria zara. Espainiako 1. Nazional Mailako 2A multzoan zabilzate. Txapelketako bigarren fasean zaudete, kategoriari eusteko borrokan.**

Txapelketako 1. faseko lehenengo 4 taldeak igoera faserako sailkatu ziren. Gu, zazpigarrenak izan ginenez, kategoriari eusteko borrokan gaude. 11 talde gaude borroka horretan, eta azken bostak mailaz jaitsiko dira. Asteburu honetan irabazten badugu jaitsiera postuetatik aterako gara. Sailkapena oso estua ari da izaten; 6 jardunaldi geratzen dira eta bukaeraraino sufritzea tokatuko zaigu. Helburua mailari eustea da, hori espero dugu.

# Herri txiki bateko talde handia

**ARETO FUTBOLA** Uharte Arakilgo Aralar Mendi estatuko areto futboleko 3. mailako talderik umilena da. 15 jokalarietatik 12 uhartearrak dira, 2 etxarriarrak eta gaskuetar bat. 2.B mailako igoera fasea ari da jokatzeko, eta hori eurentzat sekulako saria da

**Maidar Betelu Ganboa** UHARTE ARAKIL. Uharte Arakilgo Aralar Mendi estatuko areto futboleko 3. mailako talderik umilena da. 15 jokalarietatik 12 uhartearrak dira, 2 etxarriarrak eta gaskuetar bat. 2.B mailako igoera fasea ari da jokatzeko, eta hori eurentzat sekulako saria da

## Sorreraz

Duela 12 urte sortu zen Aralar Mendi areto futbol taldea. Izan du ere geldialdiren bat, taldea sortu zuen hasierako belaunaldiak utzi zuenean, baina duela zazpi bat urte belaunaldi berri bat indartsu hasi zen eta bere horretan jarraitzen du. "18-20 urte genituela hasi ginen Aralar Mendin, duela 7 urte inguru. Urte hauetan talde gisa sendotu gara eta orain ari gara fruituak jasotzen" nabarmendu du Aralar Mendiko kapitain Mikel Hermoso de Mendoza Sainz uhartearrak.

Talde gaztea izaten jarraitzen du Aralar Mendik, baina, aldi berean, esperientziaduna. Jokalari gazteenak 19 urte ditu eta nagusienak 38 urte, baina taldeko nukleorik sendoena 26 eta 29 urteren artean mugitzen da. "Nik esango nuke taldea bere unerik onenean dagoela, bere osotasunean. Beteranoek heldutasuna ematen digute eta jokalariek gazteak ditugu, indartsuak. Esperientzia eta gaztetasunaren arteko oreka lortu dugu" gaineratu du Hermoso de Mendozak.

Aralar Mendi 3. mailan lehiatzen da. Nafarroan, egun, gizonen federatutako areto futboleko 3. maila dago bakarrik, eta Espainiako Futbol Federazioak arautzen du. Aurretik, areto futboleko hiru maila omen zeuden Nafarroan: Maila Berezia,

Senior Maila eta 3. maila, baina Iruñean federatu gabeko areto futbol liga bat sortu zen, eta talde asko joan ziren bertara. Aralar Mendik, aldiz, Nafarroako Futbol Federazioan jarraitzeko hautua egin zuen. Federatuta egoteak beste seriotasun bat eskatzen duela azaldu du Aralar Mendiko kapitainak. "Taldea egituratuta egon behar da, bete-behar batzuk daude, eta esfortzu eta konpromiso gehiago eskatzen du. Aralar Mendik federatuta jarraitzea erabaki zuen, nahiz eta liga oso zorrotza izan. Gu hasi ginenean, jada soilik 3. maila zegoen Nafarroan".

Areto futbola eta futbola antzeria egituratuta daude: 1. maila, 2.A maila, 2. B maila, 3. maila... 3. mailatik gora Espainiako Federazioak arautzen ditu kategoriak. "3. maila probintziako antolatzen da, gure kasuan Nafarroan, baina estatu mailako liga da. Zubiritik hasita, Iruñerria, Sakana eta Nafarroa erdialdea pasa eta Tuterara bitarteko taldeak daude gure mailan, Nafarroa osokoak" dio Hermoso de Mendozak.

## la %100 uharte arakildarra

Aralar Mendiren kasua bitxia da. Uharte Arakilek 789 biztanle ditu, herri txikia 3. mailako areto futbol taldea izateko. Lehiatzen ari den herri txikiena da Aralar Mendik ordezkatzen duen Uharte, eta, hala ere, plantillaren gehiengo nabarmena Uharte Arakilgoa da. Taldeko 15 jokala-

**"UHARTE BEZALAKO HERRI TXIKI BATEAN HALAKO TALDE BAT EGOTEA MIRARIA DA" MIKEL H. DE MENDOZA**

rietatik 12 uharte arakildarrak dira, beste 2 etxarriarrak eta azkena Ultzamako Gaskuekoa. Entrenatzailea, Jesus Angel Alvarez, uharte arakildarra da ere. "Gurea kasu oso berezia da. Gure taldeko 12 jokalariek uharte arakildarrak izateak sekulako meritua du. Gainontzeko taldeak flipatuta geratzen dira. Galdetzen digute ea gure jokalariek Sakana guztikoak ote diren, eta ezetz erantzutean harridura geratzen dira. 3. mailako talde umilena gara, zalantzarik gabe" azpimarratu du kapitainak.

Asteartetan eta ostegunetan entrenatzen dute, 19:00etan, Uharte Arakilgo Larrabieta frontoian. Bertan jokatzeko dituzte ligako partidak. "Gainontzeko talde gehienek jokalariek asko dituzte eta onenak hautatzen dituzte. Gu azkenean 15 gara, eta txandaka aritzen gara. Hortaz, 3. mailari eusteko gogorrenak dugu, ez dago besterik" dio kapitainak.

Lehen mailako Osasuna Magna Xota eta Aspil Ribera de Navarra talde indartsuen filialak daude 3. mailako talde indartsuen artean, baina gainontzekoak ere ez dira atzean gelditzen. "Anaitasuna, San Juan, Ablitas, Ribera de Navarra eta gu saillatu gara igoera faserako, baina beste multzoan ari diren taldeen artean ere talde indartsuak daude: Xota, Kirol Sport, Cintruénigo..." azaldu du Hermoso de Mendozak. Xotak Aralar Mendiko jokalariek tentatu ote dituen galdetuta, baietz dio. "Nabarmen diren jokalariei deitu izan diete, baina Aralar Mendin jarraitu izan dute" erantzun du.

## Auzolana edo miraria

Baliabide ekonomikoaren aldetik ere aurrekontu murriztu du Ara-



Uharte Arakilgo Aralar Mendi areto futbol taldeko jokalariek astearteko entrenamendua baino lehen

lar Mendik eta aparteko gasturik ez sortzen ahalegintzen dira. "Artzain Egunean apaizaren etxeko bajaran barra bat jartzen dugu, eta bertatik ateratakoa areto futbol talderako izaten da. Horretaz gain, Uharte Arakilgo Udalak frontoia erabiltzen uzten digu, dohainik, argia, ura eta dutxak barne. Guretako hori asko da, ez digulako mantenu gasturik sortzen. Eta Aralar Mendi elkarreko sekzio bat garenez, aurrekontuen balantzea koadratzeko diru kopururen bat falta bada, elkarrekin jartzen du. Bestalde, duela 2 urte Uharte Udalak

**"ARALAR MENDIN GOGOA DUENAK JOKATZEN DU, EZ ONA EDO TXARRA DENAK" MIKEL H. DE MENDOZA**

kultura eta kirola sustatzeko dirulaguntza deialdia atera zuen, eta hortik ere kopururen bat jasotzen dugu. Udalak konpromiso bat hartu du gurekin, eta hori guretzat oso garrantzitsua da. Oso eskertuta gaude. Finean, gurea auzolana da. Beno, auzolana baino gehiago mirari bat, Uharte bezalako herri txiki batean gurea bezalako talde bat egotea mirari hutsa baita. Ia sinetsi ezina da, baino guztion artean taldea aurrera ateratzen da" dio, irribarrez, Hermoso de Mendozak.

## Taldearen arteko aldeak

Gainontzeko kantxetara joaten direnean taldeen arteko ezberdintasunak nabaritzen dira. "Pentsa guretako zer den 3.000 pertsonendako tokia duen Anaitasuna bezalako pabilioi handi batean jokatzeko, edo 1. mailako Tuterako Ribera de Navarraren



En. Ezkerretik lehena Mikel Hermoso de Mendoza Sainz da, taldeko kapitaina. ARALAR MENDI

kantxan aritzea, edo San Juanen... Kantxa ikusgarriak dira, eta guk frontoia dugu. Hala ere, azpimarratu beharra dago Uharteko frontoia ez dagoela batere gaizki. Gozada bat da" uste du kapitainak.

Pandemia dela eta, ligan lehiatzen hasi ziren lehenengoak izan ziren, areto futbol baina lehenago hasi baitzen. "Protokolo oso zorrotzak ditugu. 15 egunero jokalariek guztiek antigeno probak egiten ditugu. Orain arte ez dugu positibo kasurik izan, eta 3. mailan ez da partidarik atzeratu behar izan. Gure liga martxa

**"15 JOKALARIETATIK  
12 UHARTEARRAK  
IZATEAK SEKULAKO  
MERITUA DU"  
MIKEL H. DE MENDOZA**

onean doa" adierazi du Aralar Mendiko jokalariek.

#### Igoera fasean gozatzen

Aurten historia egin du Aralar Mendik eta 3. mailako lehen fasean 3. postuan sailkatu eta gero, 2. fasean 2.B mailako igoera fasea jokatzen ari da lehen faseko gaitzereko lau talde onenekin batera. "Ez genuen espero. Liga hasi zen, partida bat irabazi genuen, gero beste bat, hurrengoa... Dinamika horretan sartu ginen, zortea ere alde izan genuen, konfiantza, eta bat batean ikusi genuen goian geundela eta aukerak genituela. Bigarren postua ere eskura izan genuen, baina lehen faseko azken partidaren Zubiriren kontra galdu genuen. Hirugarrenak izanda, 2. B mailako igoera fasera sailkatu ginen. Etortzen dena etorrita, guretzat igoera fasean aritzea jada sari bat da.

Taldea hor egotea sekulakoa da, gozatzen gabiltza" nabarmendu du Hermoso de Mendozak.

Bigarren faseak 10 jardunaldi ditu, eta dagoeneko 5 jokatuta dira. Lehen jardunaldian San Juanen kontra 9 eta 1 galdu zuen Aralar Mendik. "Urduritasunagatik edo, ia hasieratik joan zitzaigun partida, ez ginen ongi aritu" dio kapitainak. Baina gainontzeko partidetan lehiakorrak izan dira, nahiz eta emaitzek gehiegi ez lagundu. "Anaitasuna da kategoriako talderik onena, eta bere kontra partida oso ona egin genuen. Bana berdinduta geunden, baina azken minutuan galdu genuen. Gero Ribera de Navarraren kontra Tuteran berdindu egin genuen, eta larunbatean, etxean, Ablitasen kontra, galdu egin genuen. Jokaldi polemiko bat tarteko, partidatik atera ginen eta ezin izan genion buelta eman. Goiko postuen borrokan jarraitzeko partida garrantzitsua zen, baina ez da ezer gertatzen. Bosgarrenak gara sailkapenean, lau partida ditugu aurretik eta gu gozatzera aterako gara, topera borrokatzera, beti bezala. Irabazten badugu, ongi, eta galtzen badugu ez da ezer gertatzen. Guk irabazi dugu irabazi beharrekoa: hor egotea. Beraz, bitartean, gozatzera. Sailkapenean gora egiterik badugu hobe, eta bosgarrenak bagara, berdin. Partidaz partida joango gara" azaldu du kapitainak.

#### San Juanen kontra Larrabietan

Larunbatean Aralar Mendik San Juan hartuko du Uharteko Arakilgo pilotalekuan, 18:00etan, igoera faseko 6. jardunaldian. Lehen fasean Aralar Mendik San Juanen etxean irabazi zion, eta, hortaz, larunbatean ere badu aukera. Dena ematera, lehiatzera eta euren jokoak egitera aterako dira uhartearrak.

Etxean indartsuagoa da Aralar Mendi; aurten soilik partida bat galdu du etxean, Ablitasen kontrako aurreko larunbatekoa. "Larrabietak xarma berezia du, arerioak nolabait kikiltzen ditu, ikusleak gertu daudelako. 150 ikuslerendako tokia du, eta betetzen zen. Orain, pandemiaren murrizketengatik, ikusleen erdia

**"IGOERA FASEAN  
ARITZEA SARI BAT DA  
GURETZAT, SEKULAKO.  
GOZATZEN GABILTZA"  
MIKEL H. DE MENDOZA**

## Aralar Mendi

- **Jokalariek:** Mikel Hermoso de Mendoza Sainz, Jose Mari Gorriti Gorriti, Issa El Akkari, Youssef El Akkari, Antton Igoa Lasa, Jorge Mariñelarena Arce, Mikel Martiarena Otxagabia, Beñat Iabon Izagirre, Jon Arenaza Oreja, Asier Arratibel Irurzun, Eneko Cruz Rodriguez, Xabier Cruz Rodriguez, Ibai Martiarena eta Daniel Alvarez.
- **Entrenatzailea:** Jesus Angel Alvarez.

dugu baimenduta. 70 zale inguru hurbiltzen dira, eta batzuk kanpoan geratu behar izaten dira. Uhartearrak, lakuntzarrak, etxarriarrak... etortzen dira eta oso giro polita izaten da. Besteena baino kantxa txikiagoa denez, zaleen animoak gehiago nabaritzen dira. Kantxa beroa da gurea. Beste kantxak handiagoak dira, jende gutxiago doa eta giroa hotzagoa da. Zer esango dizut, gora begiratu eta kuadrillakoak animatzen ikusteak izugarri motibatzen du. Izan ere, kirola ekintza soziala da. Guk guretzat eta gure herriarentzat jokatzen dugu; ez dugu soilik guk ongi pasatzeko jokatzen, baizik eta ikusleek ere, mundu guztiak ongi pasa dezan" nabarmendu du jokalariek uhartearrak.

2.B mailara igotzea ia ezinezkoa du Aralar Mendik baina hala izanez gero, eta alde ekonomikoa kontuan hartuta, zaila luke kategorian horretan aritzea. 2. B mailako lau multzo daude estatuan, eta horietako batean, Euskal Herriko taldeez gain, Errioxakoak, Aragoikoak, Guadalajarakoak... jokatzen dute. Desplazamendu gastuek eta bestek izugarri

zailduko lukete bertan aritu ahal izatea. "Ekonomikoki bideragarri ezina litzateke, ziur-ziur. Halako egoera batean ez dakit zer egingo genukeen" onartu du kapitainak.

#### Etorkizunaz

Aralar Mendiko jokalariek herriarren babesa gertutik sentitzen dute. Frontoira doaz eurak ikustera, eta kanpoan jokatzen dutenean, bueltan, ea zer moduz aritu diren galdetzen diete. Bai gazteek, helduek, haurrek eta "espero ez duzun jende askok". Guraso askok aipatzen diete euren umeak Aralar Mendin jokatuta nahi dutela handiak direnean. "Hori sekulakoa da guretzat, haurren ilusio hori... oso polita da" dio Hermoso de Mendozak. Taldeak etorkizuna du, egun talde gaztea delako, baina geroa ziurtatzeko kategorian txikiko taldea izatea ezinbestekoa litzateke. "Hori da gure handikap nagusia, kategorian txikiko areto futbol talderik ez izatea. Futbol txiki taldea dago, baina eskolaz kanpoko jarduerak gisa funtzionatzen du klub bat baino. Etorkizunerako erronka izan daiteke eskola bat sortu ahal izatea. Aztertzeke gauza da" dio kapitainak.

Bitartean, gogotsu jarraitzen dute Aralar Mendikoek. Jokalariek taldearekin konpromisoa dute, eta gustura daudelako jokatzen dute. Hori argi eta garbi utzi nahi izan du kapitainak. "Aralar Mendin jokatzen duenak gogoak dituelako jokatzen du. Ez ona edo txarra delako. Guk horri ez diogu begiratzen. Aurrera goaz eta ea datozen urteetan maila honi eutsi ahal diogun. Ezin badugu, berdin gozatzen jarraituko dugu, beti bezala" ondorioztatu du.



Larunbatean San Juanen kontra ariko dira eta oso gogotsu daude. ARALAR MENDI

# Leire Etxaniz Claver, Bargagaingo perla berria

**TAEKWONDOA** Asteburuan Benidormen jokatuako Espainiako Taekwondo Kopako kadeteen 37 kiloz azpiko mailan zilarrezko domina lortu zuen Etxanizek. Etxaniz Bargagain klubeko Rania Mabchour taldekidearekin batera lehiatu zen kopan

Asteburuan Espainiako Taekwondo Kopa jokatu zen Benidormen. Bertan Altsasuko Bargagain Taekwondo taldeko bi kirolarik hartu zuten parte, kadeteen mailan, Rania Mabchourrek eta Leire Etxaniz Claverrek. Raniak ezin izan zuen lehenengo erronda gainditu, baina Leire Etxaniz Claverrek aurrera egin zuen eta zilarrezko domina lortu zuen 37 kiloz azpiko kategorian. Hortaz, Espainiako Kopako txapeldunordea du.

## Bigarren belaunaldia

Oso pozik daudela azaldu du Bargagain Taekwondo Taldeko irakasle Gerardo Montero Rivera, eta balorazio positiboa egin du, bai egindako lanarengatik eta baita txapelketa berarengatik. "Honek Bargagaingo bigarren belaunaldiarekin egiten ari garen lana sendotzen du. Aurretik kirolari onak ditugu, eta atzetik datozenak, bigarren belaunaldi hau, gogotsu dator eta estatu mailan emaitzak lortzen ari da. Altsasuko taekwondo maila gorenera eraman dugu" nabarmendu du Monterok.

## Europakoari begira

Datorren txapelketa Espainiako Selektzioen Arteko Txapelketa izanen da. Oraindik ez da zehaz-



Leire Etxaniz eta Rania Mabchour, lortutakoarekin pozik. BARGAGAIN

## "KLUBEKO BIGARREN BELAUNALDIKO BORROKALARIAK GOGOTSU DATOZ" GERARDO MONTERO

tu noiz eta non jokatu den, baina Bargagain Taekwondo Taldean txapelketa horretarako prestatzen ari dira, euren kirolariren bat Nafarroako selektzioko hautatuko duten esperantzarekin, txapelketa hori, jokatu

berri den Espainiako Koparekin batera Europako Txapelketara joan ahal izateko puntuagarria baita. Leire Etxanizek Nafarroako selektzioan tokia izatea espero du Gerardo Montero Rivera irakasleak, Espainiako Txapelketan lehiatu ahal izateko. "Leirek hiruzpalau urte daramatza Nafarroako Txapelketan urrea lortzen, eta asteburuan Espainiako Kopan lortutako zilarrezko dominak ere selektzioan hautatua izateko bultzada emango diola koan gaude. Ea horrela den" aipatu du Monterok.

# Cartagenaren eta El Pozoren aurka ariko da Osasuna Magna

**ARETO FUTBOLA** Ion Cerviño gazte irurtzundarrak mina hartuta dagoen Roberto Martil kapitaina ordezkatu du

Lehen mailako sailkapenean gorenean dauden taldeen kontra aritu beharko du Osasuna Magna Xotak datozen egunotan. Aurreko larunbatean sailkapenean 2. den Palma Futsal taldearen kontra aritu zen Imanol Arregi-

ren taldea, eta modurik krudelenean galdu zuten berdeek: launa berdinduta zihozazela, azken segundotan Palma Futsalek Asierrren atea zulatatu baitzuen. "Partida eskutan izan dugu, baina ihes egin digu. Pistan ikusi de-

nerako, emaitza hau guztiz injustua eta krudela da" azaldu zuen Imanol Arregik.

Sailkapenean 11. postuan dago Osasuna Magna (32 puntu). Gaur, ostiralean, 20:00etan, talde berdeak sailkapenean 3. den Jimbee Cartagena taldea hartuko du Anaitasuna pabilioian (Navarra Television), eta, asteazkenean, 20:00etan, 4. den El Pozo Murcia.

Roberto Martil kapitainaren baja Ion Cerviñok beteko du. Aukera bikaina da 17 urteko irurtzundarrarendako.



Katarain eta Razkin, Euskal Herriko selektzioko gainontzeko taldekideekin. EHMFF

# Beñat Katarain eta Amaia Razkin Euskal selektzioarekin

**MENDI LASTERKETAK** Sevillako Peñon Xtremen 5. sailkatu zen lakuntzarra eta 21. uharte arakildarra

Euskal Herriko Mendi Lasterkariaren selektzioko ordezkaritza bat igandean Algamitasen (Sevilla) jokatuako Peñon Xtrem lasterketan lehiatu zen, 2021eko Espainiako Mendi Lasterketen Koparako baliagarria zen lehen proban. Selektzioko kideen artean bi sakandar zeuden: Amaia Razkin Medrano uharte arakildarra eta Beñat Katarain Razkin lakuntzarra. Asteburu bikaina eman zuten Andaluzian kontzentratuta, euren arteko giroa bikaina dela nabarmendu dute, eta Algamitasen lan ederra eginda itzuli dira bertatik.

Peñon Xtrem 21,5 kilometroko eta 2.000 metroko desnibel positiboko lasterketa gogorra da. Sevillako punturik altuena, el Terril (1.129 m) gainditu behar izan zuten korrikalariek. Jaitziera eta aldapa oso teknikoak zituen, eta Peñon de Algamitasko igoerak zailtasun handia izan zuen.

Gizonezkoetan gogoz borrokatu ziren Manuel Anguita andaluziarra, Borja Fernandez kantabriarra eta Euskal Herriko selektzioko Asier Larruzea. Azkenean Anguita (2:26:19) gailendu zitzaion Euskal Herriko selektzioko Larruzeari (2:26:50). Aipatzekoa da Beñat Katarain Top 5-ean sailkatu zela: helmugan 5. sartu zen lakuntzarra (2:30:23), lana bikaina eginda.

Emakumezkoetan Oihana Kortazarrek eta Patricia Pinedak lehia oso estua izan zuten, baina azkeneko igoeran Kortazarrek aurrera egin zuen eta azkarrena izan zen helmugan (2:58:57). Maite Maiora hirugarrena izan zen (3:02:48). Amaia Razkin 21. postuan sailkatu zen (3:42:25).

Espainiako Kopako baliagarria den hurrengo proba maiatzaren 16an jokatu da, Miranda de Ebron, CXM Miranda (35 km, 1.900 metro desnibel positiboa).

# Nahia Imaz lehena herrian

## TXIRRINDULARITZA

Larunbatean kadeteen gizonezkoen eta emakumezkoen juniorren 33. Burunda Txirrindularitza Trofeoa jokatu zen Altsasun (51 km). Iker Villarrek (Ega Perfil) irabazi zuen, esprintean. Mikel Regil 6. sartu zen, Asier Etxeberria 9. eta Aritz Oiarbide 10. Emakumezkoetan Nahia Imaz Perez altsasuarra izan zen txapelduna.





'Zapla!' egitasmoaren irudia. NAFARROAKO BERTSOZALE ELKARTEA

# Zazpi plaza, zazpi saio mota

Nafarroako Bertsozale Elkarteak 'Zapla!' egitasmoa jarri du martxan. Bertsolarietako plaza eskaintzeko eta "esperimentatzeko" sortu dute egitasmoa. Lau bertsolari sakandarrek parte hartuko dute. Lehenengo saioa gaur izango da, Lizarran

**Eneida C. M. eta Erkuden R. B.** SAKANA Zazpi saio desberdin, zazpi herri desberdinetan. Nafarroako Bertsozale Elkarteak aurtengo pandemia garaiko udaberrirako proposatu duen *Zapla!* egitasmoa da. Nafarroako Bertsolari Txapelketaren urtea zen, baina egoeratik bertan behera utzi behar izan zuten. "Txapelketak berezitasun batzuk ditu; berdintasun irizpidea, areto mota berdintsuak... eta pandemia egoeran bermatzea zaila zen", azaldu du Ander Perez Agote Nafarroako Bertsozale Elkarteko arduradunak. Beraz, txapelketa atzeratzen

**NAFARROAKO BERTSOLARI TXAPELKETA ATZERATU DENEZ, PLAZAK ESKAINTZEKO MODU BAT DA**

enez, elkarteak bertsolarietako "aukerak eta plazak eskaintzea" erabaki zuen, eta, horretarako, egitasmo berri bat pentsatu zuen: *Zapla!* Nafarroako bertso plaza martxan.

Zazpi saio "desberdin" biltzen dituen egitasmoa da *Zapla!*. "Ikusten genuen, txapelketan saio bakoitzaren egitura beti oso zurruna zela, txapelketak horrela eskatzen duelako. Aldiz, egitasmo honetan ez genuenez halako betebeharririk, bertso saio estiloa eta formatua, eta gaietan esperimentatzeko eta ideia berriak probatzeko aukera ematen digu". Bertsozale Elkarteak saiatzen da bertso saioak Nafarroan ahalik eta gehien hedatzen, herri eta eskualde gehienetara iristen. Oraingoan ere, zazpi herritan egonen dira saioak: gaur hasiko da Lizarran, bihar Beran, datorren ostiralean Irurtzunen, Zizur Nagusian, Antsoainen eta Agoitzen

eta maiatzaren 15ean amaituko da Arantzan.

## Esperimentua

Guztira, 30 bertsolarietako parte hartuko dute *Zapla!* egitasmoan. Deialdi zabala egin zela azaldu du Perezek, eta "espero baino gehiagok" eman zutela izena aipatu du. "Kopuru polita" da. "Jendea gogoz dagoela ikusten da, bai bertsolarien aldetik bai entzuleen aldetik". Kultur emanaldietarako grina eta gogo dago. "Uste dut bertsolarietako edo zer gauza egiteko gogoz dabiltzala; saio bakarra bada ere". Elkar-

**GUZTIRA, 'ZAPLA!' EGITASMOAN 30 BERTSOLARIK PARTE HARTUKO DUTE**

tearen lana bertsolarietako saioetan kokatzea, antolatzea eta saioen berezitasunak prestatzea izan zen, "zerbait berria" eskaini nahi izan dutelako.

Lau sakandarrek parte hartuko dute *Zapla!* egitasmoan. Ekain Alege altsasuarrak mustuko du gaur proposamena, 18:30ean, Lizarrako Los Llanos kultur etxean. Nafarroako Bertsolari Txapelketarik gabe udaberriko plaza "lehor" gelditu zela esan du Ekain Alege bertsolari altsasuarrak. "Gutxienez herrietara bertso saioak eramateko hartu duten erabakia aukera polita dela uste dut, plazak berriz biziberritzeko eta saio desberdinak herrietara eramateko". Egoerarekin kantatzeko aukerak izatea "zaila" dela esan du.

## Tramak eta koplak

Bertso saio bakoitzak formatu desberdina izango du. Lizarrako kasuan Bertso jaialdia deituta formatua izango du: "Pentsatzen dut bertso saio tradizional bat izango dela. Badaude beste formatu batzuk espezifikagoak direnak. Kasu honetan lau bertsolari eta gai jartzaile bat oholtzaren gainean izango gara". Alegrekin batera, Erika Lagoma, Julio Soto eta Saioa Alkaiza izanen dira, eta Alaitz Rekondo izango da gai jartzailea. Esperientzia berria izanen dela esan du Alegrek. *Zapla!*-ren hurrengo saioa Berako kultur etxean izanen da, bihar, larunbatean, 18:30ean, *Bidasoan gora* liburuan oinarrituta.

Datorren astean, apirilaren 30, ostirala, egitasmoa Sakanara iritsiko da. Irurtzungo kultur etxean, 18:30ean, Iker Gorosterrazu, Irati Majuelo eta Sustrai Colina ariko dira. Gai jartzailea Maialen Belarra izanen da. Bertso saio honen formatua zentzumenei bertsoetan izanen da, eta, beraz, bertsolarietako zentzumenei buruz eta zentzumenei "jola-sean" ariko dira.

Maiatzaren 2an, igandea, 18:30ean, Zizur Nagusiko kultur etxean Idoia Granizo altsasuarra, Beñat Astiz, Miel Mari Eloseggi Luze, Sarai Robles eta Xabat Ilarregi bertsolariak ariko dira. Gai jartzailea Ander Aranburu izango da, eta *Bertso trama* deituta saioa egingo dute. Granizo "izugarri ondo" hartu du egitasmoa. "Inork ez zekien zer gertatuko zen, eta elkartetik ahalegin handia egin dute. Plazak

aurrera ateratzeko modu bat da". Saio bat "behintzat" bermatuko zaie. Plazarekin "esperimentatzeko hori" gehitzen da. "Saioaren hasieran bertsolari bakoitzari nolabaiteko rol edo papera emango digute, eta saio guztian zehar rol horrekin kantatu behar dugu". Zer den probatzeko gogotsu dago Granizo, "esperimentatzeko".

*Zapla!* egitasmoaren hurrengo gelditokia Antsoaingo kultur etxean izango da, maiatzaren 8an, 18:30ean. Bertan Saats Karasatorre etxarriarrak parte hartuko du, Ainara Ieregi, Joana Ziganda, Josu Sanjurjo, Mikel Lasarte eta Patxi Castillo bertsolarietako batera. Gai jartzailea Zigor Gartzia Zian izango da eta Kopla saioa egingo dute. Karasatorrerri "interesgarria" iruditzen zaio, gehien bat "formatu desberdinen" kontuagatik. "Esperimentatzeko aukera bezala ikusten dut". Hala ere, egokitutako formatuarekin pentsatzen zena baina "zailagoa" izango dela aitortu du, "kopla kontuz ibiltzeko" modukoa delako. "Kopla txapelketaren batean aritua naiz. Oso dinamikoa eta azkarra izango da". Bertsozaleak, gainera, eza-gutzen ditu.

Maiatzaren 9an, igandean, Agoizko kultur etxean bertso jaialdia izanen da, eta *Zapla!* egitasmoarekin amaitzeko bertso bazkaria izango da Arantzako aterpean, 14:00etan, Eneko Lazkoz etxarriarrarekin eta Julen Zelaietarekin. Egitasmoa Nafarroan barna "saio batzuk egoteko eta presentzia hor egoteko" ongi dagoela esan du Lazkozek, hala ere, saio bakarra dela, bertsolarietako ez zaiela "ezer konpontzen" aitortu du. Baina behintzat, "gero beste saio batzuk" etorri daitezkeela esan du. Egokitu zaion saio formatuarekin "oso pozik" dago etxarriarra, baita bertsozaleekin ere. "Esperimentuak oso ongi daude, baina ni gauza batzuetan nahiko tradizionala naiz, eta bertso bazkari edo afariak bezalakorik ez dago bertsoetan aritzea". Hala ere, bertso bazkari "ezberdina" izango da, egoeragatik neurriak eta distantziak mantenduko direlako.

**GAUR HASI ETA MAIATZAREN 15ERA ARTE IZANEN DIRA BERTSO SAIO "DESBERDINAK"**

# Barrura begiratzeko antzezlanak

Iortia antzerki tailerrak 'Flores para ser vistas' antzezlanak mustuko du bihar, larunbata, 19:30ean, Iortia kultur gunean. Pandemia egoerara egokitutako antzezlanak sortu du tailerrak

## Antzerki tailerreko kideak



**ALBERTO ALVARO**

**Adina:** 54 urte.

**Noiztik antzerkian:** 2015 urtetik.

**Zergatik:** Ahizpak parte hartzeko esan zidan. Pixka bat askatu behar nintzen, barrukoak kanporatu. Jendearen aurrean lotsarik gabe hitz egiten ikasi nahi nuen ere.

**Pertsonaia:** Pixi.

Kontrakulturaren rock izar bat da nire pertsonaia. Ronaldorekin elkartzen da eta eszena oso polit bat dute.




**JULI ALVARO**

**Adina:** 65 urte.

**Noiztik antzerkian:** 2008 urtetik.

**Zergatik:** Lagun batengatik hasi nintzen. Izena eman zigula esan zidan. Salbatu ninduen. Barruan ditugun gauza izugarri guztiak ateratzen dira.

**Pertsonaia:** Servanda. Ia-ia ni naiz. Abeslari bat da, baina ez da errespetatua sentitzen. Norbaitek esaten dio bere barnean begiratu behar duela, bere burua maite behar duela.



**MARIA ISABEL BORREGA**

**Adina:** 64 urte.

**Noiztik antzerkian:** 2016 urtetik.

**Zergatik:** Alabak esan zidan izena emateko. Oso berandu jakin dut antzerkia gustatzen zaidala, oso berandu. Oso ongi pasatzen dugu.

**Pertsonaia:** Penelope. Etxeko emakume bat, oso bakarrik dagoena, eta bat-batean pertsona batekin konektatzen du, eta hitz egiten hasten gara.

**Erkuden Ruiz Barroso** ALTSASU

Entseguak moldatu behar izan dituzte, baita antzezlanak ere. Altsasuko antzerki tailerra urrian hasi zen lanean, hiru kide gutxiagorekin. Izan ere, pandemia egoeratik ikasurte honetan ez egitea erabaki zuten. Baina tailerrak egoerari aurre egin dio, eta maskarak jarrita bada ere, *Flores para ser vistas* antzezlanak egiten dute bihar, larunbata, 19:30ean, Iortia kultur gunean.

Birjiñe Albira da antzerki tailerreko zuzendaria. *Flores para ser vistas* antzezlanean, pertsonak aldatu behar direnean norberarengan begiratu behar duela erakusten du. "Hasiara batean pertsonaiek haien buruarekiko ez dute iritzi oso ona, desagertuak bezala daude, baina aldaketa norberak egin behar duela konturatzen dira". Beste pertsona batekin elkartzen dira, eta "zerbait" pizten da; "besteak esan dezake aldatu behar dela, baina norberak egin behar du aldaketa hori". Pertsonaiegarapena hortik doa. "Beste batzuetan bere bizitzan zer egiten ari diren esaten dute".

Jendeari asko gustatuko zaio la aipatu dute tailerreko kideek esketx txikiez osatutako antzezlan bat delako. Pertsonaiek bikotea ateratzen dira, eta besteak koralak dira. Beraz, egoerara moldatu dira, eta haien artean kontakturik ez

dago. Bi pertsonaia nagusi agertzen dira eszenan. Momenturen batean, bi pertsona horien artean sortzen den konexioan "klik" bat izango dute pertsonaiek, eta aldaketarako joera egingo dute. Pentsaraziko diete.

### Barrura begira

Pertsonaiek egunerokotasunean ikus daitezkeen pertsonaiek dira. Bizitza normala dutenak, interesik gabekoak; edo hori pentsatzen dute haiek: besteengan bere buruan baino gehiago pentsatzen duen emakumea, kaleko musikaria, etxeko andre bakartia, gazte lotsatia, rock izarra, entzulea eta abeslari sakrifkatua. Haien artean elkar ezagutzen dutenean, hori baino zerbait gehiago badirela ikusiko dute. Pertsonaiegarapena bi musikari daudenez, zuzeneko musika ere izango du antzezlanak. Musika egiten saiatuko direla aipatu du Juli Alvarok, abeslariaren papera egiten duen antzerki tailerreko kideak. Pianoa jotzen eta aldi berean abesten duen lehenengo aldia izango da. Gauza oso polita ateratzen dela esan dute kideek.

Pertsonaiek eta aktoreak aurtengo antzezlanean nahiko antzekoak direla esan dute kideek. Albirak ongi ezagutzen dituela seinale. Pertsonaiegarapena sartzeari "erronka" bat da, eta Amelia Lapuenteren kasuan, erronka "handiagoak" nahi dituela esan du. Antzerki tailerrean dagoen familia giroa gustatzen zaiela aitortu dute kideek. Oraindik goiz bada ere, datorren ikasurtean izena emango dutela nahiko ziur dute gehienek.

### Prozesua

*Flores para ser vistas* antzerki tailerrean sortutako lana da. Pandemia egoeratik, inoiz baino erronka handiagoa izan da aurten lana prestatzeko. Maskarak erabiliko dituzte, egoera behartuta. "Azken momentura arte egon gara maskarak erabili edo ez pentsatzen, baina egoerak okerrera egin duenez, ez dugu aukerarik: eramango ditugu". Entseguen ordutegiak moldatu behar izan dituzte ere, eta mustutzearen ondoren egiten duten afaria faltan botako dute. "Ezin izango dugu ezta komentatu ere, eta pena ematen du".




**BEATRIZ GANUZA**

**Adina:** 30 urte.

**Noiztik antzerkian:** 2016 urtetik.

**Zergatik:** Barruan nuena kanporatzen laguntzeko laguntzen dit. Oso lotsatia nintzen. Orain ez hainbeste. Jendearen aurrean hitz egiten ikasteko ere.

**Pertsonaia:** Etengabe besteak laguntzen egon den pertsona bat da, baina bere burua alde batean utziz. Momenturen batean zerbait ikusten du.



**EDER GOIKOETXEA**

**Adina:** 29 urte.

**Noiztik antzerkian:** Gutxi gora behera 2006tik.

**Zergatik:** Beteranoena da eta urtero egon da.

**Pertsonaia:** Umberto. Kanean jotzen duen musikari bat da, oso lasaia. Bihotz onekoa eta oso gizon zentzuduna da. Peneloperekin elkartzen da, eta asko hitz egiten dute.



**AMELIA LAPUENTE**

**Adina:** 65 urte.

**Noiztik antzerkian:** 2008 urtetik.

**Zergatik:** Ihesbide bat izan zen. Lanean zentratuta nengoen eta momenturen batean krisialdi bat izan nuen. Antzerkia betidanik gustatu izan zait. Erronka bat da.

**Pertsonaia:** Ana. Pertsona bakarti bat da eta herri batera iritsi da. Musika eta artea gustatzen zaio, eta artistarekin elkartu da. Konexio puntu bat badago.



**SERGIO MOLERES**

**Adina:** 24 urte.

**Noiztik antzerkian:** 2015 urtetik.

**Zergatik:** Kanporakoiagoa eta espontaneoagoa izateko modu bat da. Lotsa alde batera uzteko eta sozialki ditudan mugak alderatzeko.

**Pertsonaia:** Ronaldo. Beldurtia da, eta oso xelebrea. Batzuetan berarekin identifikatzen naiz, beste batzuetan ez, gehiegizkoa delako.



'Ilargiaren atzean' antzezlanak. UTZITAKOA

# Antzerkiaren katarsiaren adibide

'Ilargiaren atzean' antzezlanak gai "oso indartsuak" lantzen ditu. Antzerkiaren bidez haurrek pertsonaiekin bat egiten dutela eta ikusten ari direna sentitzen dutela azaldu du Izaskun Mujika Mujika aktoreak

**Erkuden Ruiz Barroso** IHABAR

Antzerkia "katarsia" dela esan du Izaskun Mujika Mujikak. "Bat-batean agertokian sentitzen dutena ari zara sentitzen". Katarsi hori *Ilargiaren atzean* aktoreak mustu duen azken lanean adierazten da. Lan "zoragarria" dela esan du; emozioek "gainezka" egiten dutela. Apirilaren 25ean, igandean, 18:00etan, Irurtzango kultur etxean emanaldia egingen dute.

*Ilargiaren atzean* antzezlanak Nafarroako Antzerki Eskolak eta Iruñeko Udalak antolatzen duen antzerki testu lehiaketa irabazi zuen 2019an. Maialen Diezen testua da. Nafarroako Antzerki Eskolak eta Malaspulgas taldeak hartu zuten antzokira eramateko ardura. 2020an mustu behar zuten, baina pandemiagatik atzeratu zuten. Azkenean, urrian estreinatu zuten eta, orain, gaztelaniazko bertsioa ere plazaratu dute. Nafarroako Antzoki Sarearen Zirkuituan sartu ziren, eta Nafarroako

roa osoan "hainbat" emanaldi eskainiko dituzte.

"Haurrendako zoragarria da". Maialen Diezek "sekulako" lan polita egin duela azaldu du Mujikak: "genero aldetik oso interesgarria da, familia estruktura bat planteatzen du...". Denak emakumeak direla gaineratu du aktoreak: Virginia Cervera zuzendaria eta Monika Torre, Sofia Diez, Patrizia Eneritz eta Mujika aktoreak dira.

**Gai indartsuak**

*Ilargiaren atzean* antzezlaneko protagonistak, Graziana eta bere alaba Ilazki dira. Mujikak Ilazkiren papera egiten du. Biak bakarrik bizi dira eta Ilazkik

**HAURRENDAKO  
"LAN ZORAGARRIA"  
DA, LANTZEN  
DITUEN GAI  
"INDARTSUENGATIK"**

desio bat dauka: ahizpa bat izatea. "Urtero mamurroak, galtzagarriak, San Joan gauean harraipatzen ditu eta desio hori eskatzen die. Baina ez diote betetzen, ezinezkoa delako". Amaren eta alabaren artean gatazka dago, baina "bat-batean" beste pertsonaia bat agertzen da, gurasorik gabe gelditutako neskatu bat, "galdua", eta Grazianaren bidean jartzen da: "Alaba berri bat dauka, Ilazkirentzat ahizpa bat dauka... Etxera eramaten du". Pertsonaia oso polita dela esan du aktoreak: "Gurasorik gabe gelditutako pertsonaia bat da, duen traumagatik hitz egiten ez duena". Beste bidai bat hasten da: "Bi neskatu hauen artean zer gertatzen da, zer gertatzen da etxean haur berri bat sarzten denean eta abar. Hor hasten da gatazka". Eta ezin du gehiago kontatu.

Emozioak gainezka dauden lan bat dela esan du Mujikak. "Horrela landu dugu interpretazio aldetik ere, emozioak bizi-bizian".

Haurrendako "lan zoragarria" dela aipatu du, lantzen dituen gai "oso indartsuengatik": jelskortasuna, adopzioa, heriotza, desioak, norbait desagertzen denean, gauzak egin ondoren zer egin, barkamena eta "hainbat eta hainbat".

"Bideratzen duzun moduaren arabera, antzerkiak, ipuinak eta denak ikasteko balio dezakete. Ni ez naiz batere didaktikoa ezta pedagogikoa ere. Baina testu honek duen interesgarritasuna hori da: ez dago modu didaktikoan eginga". Testuak zuzenean emozioekin konektatzen du: "Bizitzaren zati bat antzerkira eramanda da, baina modu poetiko batean eginda. Haurrei ez zaie esaten: 'hau ez da horrela egiten. Ez. Bi haur ikusten dituzu eta haurrak beraien lekuan jartzen dira'. Antzerkiaren katarsia sortzen da.

**Probateagatik**

Hernaniko, bere herriko, institutuan ikasten ari zela antzerki tailerrean hasi zen, "gazte asko hasten diren bezalaxe; probateagatik". Oso gustura aritu zen bi urtetan, eta ikasketak aukeratzea tokatu zitzaionean psikologia ikastea pentsatu zuen, "baina bat-batean pentsatu nuen ez nuelo".

**"MOMENTU  
HORRETAN OSO  
ARGI NEUKAN  
ANTZERKIA EGIN  
NAHI NUELA"**

la nahi". Antzerkiaren munduan sartu nahi zuen. "Behintzat probatu, aukera bat eman". Badaezpada psikologian aurrematrikula egin zuela aitortu du.

Garai horretan Nafarroako Antzerki Eskolan sartzeko probak egiten zituzten, "eta ez zen erraza sartzea. Jende asko geratzen zen kanpoan". Antzerkia ikastera iritsi zen Mujika Nafarroara, Gipuzkoan ez zuelako aukerarik. "Aukera bat eman nion, gero beste bat, eta beste bat...". Bokazioa den galdetzen diotenean, ez du oso argi "pasioa edo bokazioa" ote zen: "Momentu horretan oso argi neukan hori egin nahi nuela. Banekien probatu behar nuela, eta hori egin nahi nuela".

Probatzen hasi zen, gauzak ateratzen joan ziren, eta dagoeneko hogeitau urte inguru daramatza oholtzaren gainean. Institutuko taldetik hiru pertsona aktore profesional direla aipatu du, "eta ez da oso ohikoa". Irakaslearen lan onaren seinale dela azaldu du: "Izan daiteke zaletasunarekin batek jarraitzea, baina urte berean hiru pertsona ez da hain arrunta. Irakasleaz asko esaten du". Gazteei "edozein arlo" norak erakusten dien garrantzitsua dela gaineratu du, "pasioa kutsatu dezake, edo kontrakoa".

**Kultur egarria**

Mujika aktorea eta ipuin kontalaria da, eta normalean ipuin kontaketa saioetara joaten diren haurrak antzerkira joateko ohitura ere izan ohi dutela esan du. "Beste arloetan gertatzen den bezala: badago jendea denetara joan dena". Baina izan daiteke ipuin kontaketatik hasi eta antzerkirako salto ematea. Bi saioek arau desberdinak ikasi behar izatea erakusten du, biak antzerkiak: eserita egon behar izatea, isilik, arreta mantendu...

Antzerkiaren munduan hasi zenetik, Mujikak ez du aldaketa handirik nabaritu, "baina bitxia da orain pandemia garai honetan antzerki eskolan estreinatu genuenean, edukiera kontuan hartuta, aretoa beteta zegoela". Bigarren saio bat egin behar izan zuten. "Izan ditugu euskarazko estreinaldiak oso jende gutxirekin". Beraz, ez da bakarrik edukiera gutxi dagoelako: "Badago jendea lehen joaten ez zena, eta orain ezin duenez beste jarduerarik egin, antzerkira joaten hasi dena". Beharra sortu da.

# "Flamenko jantzi bakoitza bakarra da"

Alba Marin Amigo olaztiarrak moda diseinuko goi mailako ikasketak egin ditu. Hasieratik moda flamenkoaren inguruko interesa izan du, eta, orain, horretan espezializatzen ari da, Sevillan. Asteartean lehenengo desfilea egin zuen

Erkuden Ruiz Barroso OLAZTI

## 1 Zergatik moda flamenkoa?

Ama Andaluziakoa da, eta ni Olaztin jaio eta hezi naizen arren, moda ikasketak egiten nituenean erreferentzia asko moda flamenkotik hartzen nituen. Ikasketak Iruñean egin nituen, eta ezin izan nuen guztiz esplotatu. Gehiago ikertzeko gogoekin gelditu nintzen. Sevillako Unibertsitatearen Moda flamenkoan espezializazio ikasketak propio hau ikusi nuenean, asko pentsatu gabe sartu nintzen.

## 2 Espero zenuena izaten ari da?

Urte eta erdi irauten du, datorren urteko martxoan bukatuko dut. Hasi nintzen oso ongi jakin gabe nondik joko zuen. Pila bat ikasten ari naiz; asko. Pentsatzen nuena baino gehiago gustatzen zait.

## 3 Zer da flamenko jantzi bat?

Flamenko edo *gitana* jantzia Andaluziako jantzi tradizionala



Alba Marin Amigo moda diseinatzailea. UTZITAKOA

edo eskualdeko jantzia da, guk baserriar jantziak ditugun bezala. Jendeak tanto soineko bat ikusten du, baina askoz haratago doa. Moda duen eskualde jantzi bakarra da. Urtero desfileak egiten dira, diseinatzaile asko daude modu eskusiboan egiten dutenak eta proposamen berriak ateratzen dituzte urtero. Jantzi oso moldakorra da, modu askotara eraman daiteke.

## 4 Oraintxe bertan, zer eramaten da?

Oraintxe bertan moda flamenkoa oso egoera larrian dago. Sektoreak bi urte daramatza fakturatu gabe. Bizirauteko modua bilatzen ari dira. Hasiera puntua Sevillako Feria da, orain ospatuko litzatekeena, eta gero beste feria eta erromeriak etorriko lirake. Egoerari aurre egiteko *Andalucia Lunar Of* deitutako mugimendu bat sortu da. Espero da datorren urtean atera ahal izatea, eta sektorea pixka bat altxatzea. Esaten dutenagatik, oso estremista izango da: edo bolumen handiko gauzak edo oso kontserbadoreak. Ziur jendeak soineko berriak erosiko dituela. Eta kolore handikoak.

## 5 Beraz, pandemiak soinekoetan eragina izango du.

Ferian asko gastatzen da. Kontatu didatenagatik, urtero jantzi bat estreinatzen dute. Bi urte daramatzate feriarik gabe, beraz, berriz ateratzen direnean, ez dute duela hiru urteko soinekoak jarriko. Dagoeneko pasatuta dago.

## 6 Apirileko Feria izango litzateke orain. Nola dago giroa?

Nik ez dut feria ezagutzen. Baina, aurreko larunbatean feriaren lehenengo eguna izango litzateke, eta jendea feria giroan zegoen; egoeratik neurriak errespetatzen ziren, baina jendea ongi jantzita zihon, kaletik flamenkak ikusten ziren...

## 7 Asteartean desfilea izan zenuen. Zer aurkeztu zenuen?

Eskolak *Premier Lunar* deitutako nazioarteko ekimen bat antolatuta zuten. Beste bat ere izan behar nuen, baina atzeratu dute. Gradu Amaierako Lanerako egin nuen proiektuarekin jarraitu nuen. Moda flamenkoa aztertu eta ikeru nahi izate horrek eraman ninduen Andaluziako tradizionalismo erlijioduna eta iruditegia oinarri hartzera. Euskal Herriko

mitologiarekin eta paganismoarekin uztartu nuen. Bekatu kapitalean inspiratu nintzen, eta ni naizena adierazten du. Aurretik egindako zazpi jantzietatik bi hartu nituen eta eraldatu. Flamenka batek merezi duen bolu-mena eta dramatismoa eman diet.

## 8 Zer ezaugarri izan behar ditu?

Bi mota daude: ferriako flamenko jantzia eta erromeriako bata deitzen dena. Erromeriakoak peregrinazioa edo ibilaldiak egiteko jantzen dira, Rocio esaterako. Bolanteak behar ditu, tantoak eta abar, baina oso arinak dira. Ferriko jantzi batean gitarra silueta edo gorputza ongi markatzea da elementu garrantzitsu bat, eta belanetan moztua egotea eta hortik bolanteak ateratzea. Osagarriak ezinbestekoak dira: mantoia, loreak, belarritakoak... *look* osoa da.

## 9 Artisauak dira?

Horregatik gustatzen zait moda flamenkoa ere, artisaua delako. Badira pare bat enpresa masa produkzioak egiten dituztenak, baina ez du zerikusirik jendeak nahi duenarekin: taillerera joan, neurriak hartu eta norberaren gorputzera eta gustuetara egokitu. Soineko guztiak eskuz bukatzen dira. Daukaten prezioa ulertzen da, atzean dagoen lana ulertzen delako. Diseinu bakarra dago.

## 10 Nolako zure estiloa?

Zerbait oso desberdina egin nahi nuen. Ikasi nuen flamenkoa izateko, elementu jakin batzuk behar dituela, eta orduan silueta berriak sortu nahi ditut. Oso kontzeptuala naiz. Desfilea asmoen adierazpena izan zen, ez baita ohikoa flamenko jantziaren hola-koak ikustea. Saiatuko naiz nora-bide berean jarraitzen. Soineko batzuk sinpleagoak egingo ditut ere. Oreka mantendu behar da.

## 11 Zer egin nahi duzu etorkizunean?

Ez dut oso argi. Esperimentatu nahi dut. Arlo honetan diseinatzaile bezala garatu nahi dut, asko gustatzen zaidalako. Etor-kizunean moda flamenkoa egiten ikusten dut nire burua, baina gustatuko litzaidake *pret-a-porter* edo eguneroko moda bat egitea, baina flamenko ukituekin, gauzak egiteko modu desberdin batean, lehen bezala.

## 2021-2022 IKASTURTEA



**ESKOLA AGENDA**

Estandarrak edo pertsonalizatuak  
Euskal Herriko jaiegunak  
Unibertsitari buruzko ezagutzak handitzeko aukera



**IRAKASLE AGENDA**

Estandarrak edo pertsonalizatuak  
A5 edo A4 neurrikoak  
Barruko orrialde zuluak edo koadernatuak

ESKATU AURREKONTUA KONPROMISORIK GABE

EGIN ZURE ESKAERA 2021EKO MAIATZAREN 31 BAINO LEHEN

618 640 056 | gk@gkomunikazioa.eus | Foru plaza, 23-1. Altsasu



**gk**  
DISEINU GRAFIKOA  
WEB DISEINUA  
KOMUNIKAZIOA